3.- De conformidad con lo establecido en el artículo 51 de la LRJSP, son causas de resolución del convenio marco, las siguientes:

- a) Por el transcurso del plazo de vigencia sin haberse acordado la prórroga del mismo.
- b) Por acuerdo unánime de las partes.
- c) Por el incumplimiento de las obligaciones y compromisos asumidos por alguno de los firmantes.
- d) Por decisión judicial declaratoria de la nulidad del mismo.
- e) Por cualquier otra causa distinta de las anteriores prevista en el convenio o en las leyes.

DECIMOSEXTA.- Tratamiento de datos personales.

En caso de que la información incorpore datos personales de los interesados, tanto el cedente como el cesionario tratarán los datos de acuerdo al Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 y a la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de

Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales.

Los datos tratados en este convenio marco tienen la categorización de información tributaria

DECIMOSEPTIMA.- Régimen jurídico.

El presente convenio marco tiene naturaleza administrativa, y se rige por lo dispuesto en los artículos 47 a 53 del Capítulo VI del Título Preliminar de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

Anexo B

INFORMAZIOA ELKARTRUKATEKO, OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUAREN ETA GIPUZKOAKO UDALEN ARTEKO ESPARRU HITZARMENARI ATXIKITZEKO PROTOKOLA

.....jaunak/andreak.....ko Udaleko alkate gisa, --
-----Udalaren ordezkari, hauxe

ADIERAZTEN DUT

-----ko Udalak, 202-ko-----bilkuran, erabaki du yyy Foru Agindu bidez onartutako Ogasun eta Finantza Departamentuaren eta Gipuzkoako udalen arteko informazio-trukerako esparru hitzarmenari atxikitze eskatzea.

-----ko Udalak esparru hitzarmena ezagutu eta erreparorik gabe onartzen du, hari atxikitzeari dagozkion alderdi guztietan; horrez gain, konpromisoa hartzen du esparru hitzarmenenean jasotako betebeharrak betetzeko.

Jarraian, esparru hitzarmen ereduko eranskin bakoitzeko beharrezkoak diren datuak zehazten dira:

1.- Eranskina. Kontu korrante zenbakia egiaztatzea

- Erabiltzaileen kudeaketaz eta emandako informazioaren segurtasunaz eta kontrolaz arduratuko den organoa.

Izen-deiturak, lanpostua eta e-posta

- Solaskideak:

-----Udaletxetik:-----

2.- Eranskina (D-6). Udalerrian dauden higiezinaren OE eta EJD operazioen datu eta notaritzako eskrituretara sarbidea, Hiri-Lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zerga eta beste udal zerga batzuk kudeatu eta biltze aldera

PROTOCOLO DE ADHESIÓN AL CONVENIO MARCO PARA EL INTERCAMBIO DE INFORMACIÓN ENTRE EL DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS Y LOS AYUNTAMIENTOS DE GIPUZKOA

D/Dña.....Alcalde del Ayuntamiento de.....,
en calidad de Alcalde y en representación del
Ayuntamiento de

DECLARA

Que el Ayuntamiento de....., ha acordado, con fecha ----de ----de 202--, solicitar la adhesión al convenio marco para el intercambio de información entre el Departamento de Hacienda y Finanzas y los ayuntamientos de Gipuzkoa aprobado por la OF yyy.

Que el Ayuntamiento de-----conoce y acepta sin reservas el convenio marco en todo lo que le es de aplicación respecto de su adhesión, y se compromete a las obligaciones establecidas en el mismo.

A continuación, se detallan los datos específicos necesarios para completar los anexos del convenio marco:

Anexo 1.- Verificación del número de cuenta corriente

- Órgano responsable de la gestión de usuarios/as y de la seguridad y del control de la información cedida

Nombre y apellidos y puesto de trabajo. E-mail

- Interlocutores/as.

Del Ayuntamiento -----: -----

Anexo 2.- (D-6) Acceso a datos y escrituras notariales de operaciones de TP y AJD relativas a inmuebles radicados en el municipio, para la gestión y recaudación del Impuesto sobre el Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana y otros tributos municipales



- Emandako informazioan sartzeko baimendutako pertsonak:

Izen deiturak, eta email (arduraduna ez dena)

- Erabiltzaileen kudeaketaz eta utzitako informazioaren segurtasunaz eta kontrolaz arduratuko den organoa

Izen deiturak, e-posta eta telefonoa

- Solaskideak

-----Udaletxetik:-----

Horren guztiaren ondorioz, honako hau

ESKATZEN DU:

-----ko Udala, toki-erakunde horren ordezkari izanik, yyy Foru Agindu bidez onartutako Ogasun eta Finantza Departamentuaren eta Gipuzkoako Udalen artean informazioa elkartrukatzeko esparru hitzamenari atxikitzea.

JARRAIBIDEAK:

- 1.- *Atxiki nahi diren eranskinei dagozkien datuak betetzea*
- 2.- *Udalaren armarrria atxikipen-agiriaren goiburuan eta sinatu nahi diren eranskinetan txertatzea.*
- 3.- *Alkateak agiri hau elektronikoki sinatzea.*

4.- *Dokumentu hau, beteta eta sinatuta, SIR bidez honako DIRera bidaltzea: LA0016043.*

- Personas autorizadas para acceder a la información suministrada:

Nombre y apellidos, y email (que no sea el responsable)

- Órgano responsable de la gestión de usuarios/as y de la seguridad y del control de la información cedida:

Nombre y apellidos, puesto de trabajo, e-mail y teléfono

- Interlocutores/as:

Del Ayuntamiento -----: -----

Y en consecuencia

SOLICITA:

La adhesión del Ayuntamiento de -----cuya representación ostento, al convenio marco entre el Departamento de Hacienda y Finanzas y los Ayuntamientos de Gipuzkoa, para el intercambio de información, aprobado mediante Orden Foral de XXX

INSTRUCCIONES:

- 1.- *Rellenar los datos correspondientes a los anexos a los que se quiera adherir.*
- 2.- *Incluir el escudo del ayuntamiento en el encabezamiento del documento de adhesión y en los anexos que se quieran suscribir.*
- 3.- *Firmar el presente documento electrónicamente por parte del/de la Alcalde/ Alcaldesa.*
- 4.- *Remitir el presente documento cumplimentado y firmado por el SIR al siguiente DIR: LA0016043.*

1 ERANSKINA

Kontu korrante zenbakia egiaztatzea

1. Deskripzioa.

Kontu korrantearen titularitasuna egiaztatzea, Ogasun eta Finantza Departamentuko Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak garatu duen funtzionaltasunaren bidez (NIREKO aplikazioa).

2. Informazio lagapenaren helburua.

Zergadunak emandako kontu korrantearen titularitasuna egiaztatzea, udalen aldetik laguntzak edo bestelako diru-sarrerak jaso nahi dituenean, Gipuzkoako Foru Ogasunaren datu-basean agertzen denaren berbera izan dadin.

Kontu korrantearen egiaztapena zergadunak izendatutako kontuan desadostasunik eta manipulaziorik egon ez dadin egiten da.

3. Arau oinarria.

38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa. EAO, 276. zk., 2003ko azaroaren 18koa.

887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Diru-laguntzen Erregelamendu Orokorra onartzen duena. EAO, 176. zk., 2006ko uztailaren 25ekoa.

Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Araua, Gipuzkoako Toki Haziendak arautzekoak (uztailaren 10eko GAO, 130 zenb.)

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 92.1.b, d eta m artikulua.

4. Datuen titularraren baimena.

Ez da beharrezkoa. Datuen lagapena Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 92.1.b, d eta m artikuluetan oinarritzen da. Pertsona fisikoaren kasuan, DBEOren 6.1.e) artikulua ere aplikatu behar

ANEXO 1

Verificación del número de cuenta corriente

1. Descripción.

Verificar la titularidad de la cuenta corriente mediante la funcionalidad que ha desarrollado la Dirección de Finanzas y Presupuestos del Departamento de Hacienda y Finanzas (Aplicación NIREKO).

2. Finalidad del suministro.

Comprobar que la titularidad de la cuenta corriente aportada por el contribuyente cuando quiere percibir ayudas u otros ingresos por parte de los Ayuntamientos sea la misma que consta en la base de datos de la Hacienda Foral de Gipuzkoa.

La verificación de la cuenta corriente se realiza en aras a que no exista discordancia y manipulación de la cuenta designada por el contribuyente.

3. Justificación normativa.

Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones. BOE núm. 276, de 18 de noviembre de 2003.

Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento, General de Subvenciones. BOE núm. 176, de 25 de julio de 2006.

Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, Reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa (BOG nº 130, de 10 de julio)

Artículo 92.1.b, d y m de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

4. Consentimiento de la persona titular de los datos.

No es necesario. La cesión de datos se fundamenta en el artículo 92.1.b, d y m de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa. En el caso de personas físicas, resulta de aplicación asimismo el

da.

artículo 6.1.e) RGPD.

5. Eman beharreko informazioaren edukia.

Sartutako kontu korrontearen zenbakia Gipuzkoako Foru Ogasunaren datu-basean agertzen denarekin bat datorren egiaztatuko da (196 eredutik lortutakoa, edo, bestela, egindako ordainketetatik lortutakoa).

5. Contenido de la información a suministrar.

Se comprobará si el número de cuenta corriente introducido coincide con el que consta en la base de datos de la Hacienda Foral de Gipuzkoa (obtenido del modelo 196, o en su defecto, de los pagos efectuados).

6. Informazio lagapenerako prozedura.

Sareko udalaren aplikazioari kontuak egiaztatzeke baliagarritasuna erantsiko zaio, eskaeran sartutako kontu-zenbakia Ogasun eta Finantza Departamentuaren sisteman agertzen denarekin bat datorrela egiaztatzeke.

6. Procedimiento para el suministro.

A la aplicación del ayuntamiento Sareko se le incorporará la utilidad de verificación de cuentas para cotejar que el número de cuenta introducido en la solicitud coincide con el que consta en el sistema del Departamento de Hacienda y Finanzas.

7. Lagapenaren aldizkakotasuna eta eragiten dien pertsonen kopurua.

Kontsulten aldizkakotasuna iraunkorra eta etengabea izango da, udal hartzailearen beharren arabera.

7. Periodicidad del suministro y número de personas afectadas.

La periodicidad de las consultas será permanente y continuada en función de las necesidades del ayuntamiento cesionario.

8. Emandako datuak hirugarren bati lagatzeko aurreikuspena.

Ez

8. Previsión de ulteriores cesiones de los datos suministrados.

No.

9. Erabiltzaileen kudeaketaz eta emandako informazioaren segurtasunaz eta kontrolaz arduratuko den organoa.

Izen-deiturak, lanpostua eta e-posta

Erabiltzaileei alta ematea, sarbideak baimentzea eta sarbide horiek etengabe eguneratu eta egokitzea, udal hartzailearen organo arduradunak (edo bestela, IZFEk) egingo duen zeregina izango da, Ogasun eta Finantza Departamentuak gainbegiratzeko duen aukera baztertu gabe.

Nolanahi ere, sarrera kudeaketaren arduradunak erabiltzaileei pertsonalki informatuko die informazioa atzitzearen ondorioz berari dagozkion betebeharrak eta erantzukizunen inguruan.

9. Órgano responsable de la gestión de usuarios/as y de la seguridad y del control de la información cedida.

Nombre y apellidos y puesto de trabajo. E-mail.

El órgano responsable del ayuntamiento cesionario (o IZFE, en su defecto) asumirá directamente, respecto de sus usuarios, el alta, la autorización de accesos y su permanente actualización y adecuación, con independencia de la supervisión que pueda efectuarse por el Departamento de Hacienda y Finanzas.

En todo caso, los usuarios serán informados personalmente por parte del responsable de la gestión de accesos sobre las obligaciones y responsabilidades que le incumben como consecuencia del acceso a la información.

10. Solaskideak.

- -----Udaletxetik: _____

10. Interlocutores/as.

- Del Ayuntamiento -----: -----



- *Informatika gaietarako: IZFE, SA / Udalefako Bezeroen Arduraduna*
- *Ogasun eta Finantza Departamentutik: Zerga Arloko Eraldaketa Teknologikoko Zerbitzua*
- *Para cuestiones informáticas: IZFE, SA./ Responsable de clientes Ayuntamientos*
- *Del Departamento de Hacienda y Finanzas: El Servicio de Transformación Tecnológica Tributaria.*

Bi aldeek beren gain hartzen dute eranskin honetan adierazitako datuak eguneratuak izateko ardura

Ambas partes se comprometen a mantener actualizados los datos contenidos en el presente anexo.

11. Bestelako eginkizunak.

Ogasun eta Finantza Departamentuak eta Gipuzkoako lurralde historikoko udalek informazioa elkarri lagatzeko lankidetzaren hitzamenaren HAMAIRUGARREN klausulan jasotzen den informazioa sistema tradizionalen bidez bidaltzeko ez eskatzeko eta herritarrari ekarpen indibidualik egiteko ez eskatzeko konpromisoaz gain, udal hartzaileak konpromiso hauek ere hartzen du:

- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Departamentuari jakinaraziko dio informazio lagapenean gerta daiteken gorabeherak, teknikoak nahiz juridikoak.

11. Otros compromisos.

Además del compromiso de no exigir la remisión de la información por sistemas tradicionales ni su aportación individual al ciudadano recogido en la cláusula DECIMOTERCERA del convenio de colaboración en materia de cesión recíproca de información entre el Departamento de Hacienda y Finanzas y los ayuntamientos del territorio histórico de Gipuzkoa, el ayuntamiento cesionario se compromete a:

- Comunicar al Departamento de Hacienda y Finanzas cuantas incidencias, técnicas o jurídicas, se produzcan en el suministro de información.

2. ERANSKINA (D-6.)

Udalerrian dauden higiezin OE eta EJD operazioen datu eta notaritzako eskrituretara sarbidea, Hiri-lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zerga eta beste udal zerga batzuk kudeatu eta biltze aldera

1. Deskribapena.

Udalari zerga informazioa ematea Hirilurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zergaren kudeaketa eta bilketarako.

2. Informazio lagapenaren helburua.

Udaleko higiezin (hiritarren zein landatarren) eskualdaketei eta beste eragiketa batzuei buruzko informazio zehatza eskuratzea, Hirilurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zerga eta udalaren ardurapeko beste zerga batzuk likidatu eta bildu ahal izateko.

3. Arau oinarria.

Udalak aipatu alorrean dauzkan eskumenak arau hauek egotzen dizkiote:

- Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Haziendak arautzekoak (uztailaren 10eko GAO, 130. zenb.).
- Uztailaren 5eko 16/1989 Foru Arauak, Hirilurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zergari buruzkoak (uztailaren 10eko GAO, 130. zenb.).
- Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 16/1989 Foru Araua Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziara egokitzeari buruzko azaroaren 16ko 7/2021 Foru Dekretu Arauak, 8. paragrafoa gehitu dio 7. artikuluari:

Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 8. artikuluan xedatutakoaren arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta toki erakundeek zerga aplikatzen lagunduko dute, eta, bereziki, 1.3 eta

ANEXO 2 (D-6)

Acceso a datos y escrituras notariales de operaciones de TP y AJD relativas a inmuebles radicados en el municipio, para la gestión y recaudación del Impuesto sobre el Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana y otros tributos municipales

1. Descripción.

Suministro de información tributaria al Ayuntamiento para la gestión y recaudación del Impuesto sobre el Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana.

2. Finalidad del suministro.

Obtener información detallada de las transmisiones patrimoniales y otras operaciones referidas a los bienes inmuebles urbanos y rústicos del municipio para poder liquidar y recaudar el Impuesto sobre el Incremento de Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana y otros tributos municipales.

3. Justificación normativa.

Las competencias del Ayuntamiento en esta materia vienen atribuidas por la siguiente normativa:

- Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, Reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa (BOG nº 130, de 10 de julio).
- Norma Foral 16/1989, de 5 de julio, del Impuesto sobre el Incremento de Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana (BOG nº 130, de 10 de julio).
- El Decreto Foral-Norma 7/2021, de 16 de noviembre, de adaptación de la Norma Foral 16/1989, de 5 de julio, del Impuesto sobre el Incremento de Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana a la jurisprudencia del Tribunal Constitucional, ha añadido un apartado 8 al artículo 7:

Con arreglo a lo dispuesto en el artículo 8 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, Reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, la Diputación Foral de Gipuzkoa y las entidades locales colaborarán para la aplicación del

1.4 artikuluetan ezarritakoak betetzeko. Horretarako, tributu-informazioa trukatzeko eta lankidetzan aritzeko hitzarmenak sinatu ahal izango dira.

4. Interesdunaren baimena.

Eranskin honetan jasotzen den informazio lagapenak ez du galdatzen interesdunaren baimenik, bere helburua ZFAOren 92.1b) artikuluan aurreikusten baita (titularren baimenik gabe egin daitezkeen zerga informazio lagapenak): *"Beste zerga administrazio batzuei laguntzea beren eskumenen esparruan sartzen diren zerga obligazioak betetzeko"*.

5. Eman beharreko informazioaren edukia.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga dela eta aurkeztu zaizkion aitortzen bidez (60T eta 60A ereduak dagozkien aitortzen bidez) jasotzen duen informazioa jarriko du Udalaren esku. Halaber, eskualdaketa nahiz eragiketa horiei lotutako eskritura digitalizatuak ere ikusi ahal izango ditu baimendutako udalak.

60A eta 60T ereduak aitortutako eskualdaketa eta eragiketetatik, ondorengo gakoak dagozkien buruzko informazioa emango da bakarrik:

60T, ondare eskualdaken aitortzen-likidazioa:

TU0 Higiezin hiritarren eskualdaketa eta horien gaineko eskubide errealak: orubeak
TU1 Higiezin hiritarren eskualdaketa eta horien gaineko eskubide errealak: etxebizitzak
TU2 Higiezin hiritarren eskualdaketa eta horien gaineko eskubide errealak: merkataritza lokalak
TU3 Higiezin hiritarren eskualdaketa eta horien gaineko eskubide errealak: industri pabiloiak
TU4 Higiezin hiritarren eskualdaketa eta horien gaineko eskubide errealak: bestelako eraikinak
TR0 Higiezin landatarren eskualdaketa eta horien gaineko eskubide errealak

impuesto y, en particular, para dar cumplimiento a lo establecido en los artículos 1.3 y 1.4, pudiendo suscribirse para ello los correspondientes convenios de intercambio de información tributaria y de colaboración."

4. Consentimiento de la persona interesada.

El suministro de información que se recoge en el presente anexo no requiere el consentimiento de la persona interesada, porque responde a la finalidad prevista en el artículo 92.1.b) de la NFGT (cesión de datos tributarios sin necesidad de consentimiento de su titular): *"La colaboración con otras Administraciones tributarias a efectos del cumplimiento de obligaciones fiscales en el ámbito de sus competencias"*.

5. Contenido de la información a suministrar.

Se pondrá a disposición del Ayuntamiento cesionario la información que el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa conoce a través de las declaraciones presentadas del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados (modelos 60T y 60A). Asimismo, posibilitará el acceso a las escrituras digitalizadas unidas a dichas transmisiones y operaciones.

De las transmisiones y operaciones declaradas en los modelos 60A y 60T se incluirán sólo las correspondientes a las siguientes claves:

60T, declaración-liquidación transmisiones patrimoniales:

TU0 Transmisiones y derechos reales sobre inmuebles urbanos: solares
TU1 Transmisiones y derechos reales sobre inmuebles urbanos: viviendas
TU2 Transmisiones y derechos reales sobre inmuebles urbanos: locales comerciales
TU3 Transmisiones y derechos reales sobre inmuebles urbanos: pabellones industriales
TU4 Transmisiones y derechos reales sobre inmuebles urbanos: otras edificaciones
TR0 Transmisiones y derechos reales sobre inmuebles rústicos

60A, egintza juridiko dokumentatuen (notarioarenak eta administrazioarenak) aitortpen-likidazioa:

DN0 Bereizketa, zatiketa, gehiketa eta elkarketa

DN1 Obra berriaren aitortpena

DN2 Zatiketa horizontala

DN3 BEZari loturiko entregak: etxebizitzak

DN4 BEZari loturiko entregak: merkataritza lokalak

DN5 BEZari loturiko entregak: pabiloiak

DN6 BEZari loturiko entregak: bestelako eraikinak

DN7 BEZari loturiko entregak: lursailak

Informazio hartzaileari bere udalerrian dauden ondasun higiezin hiritarren zein landatarren informazioa emango zaio eta horien gainean egiten diren eragiketak (goian aipatutakoak) jasotzen dituzten eskritura digitalizatuak ikusi ahal izango ditu.

Halaber, departamentuak digitalizatutako gainerako eskriturak ere ikusi ahal izango ditu, baina horretarako Udalak berak eskritura zehatz hori identifikatzeko galdatzen diren datuak (notarioaren gakoa, urtea eta protokoloa) eman beharko ditu.

6. Informazio lagapenerako prozedura.

Informazioa Gipuzkoako Foru Aldundiaren Egoitza Elektronikoen online izapideen atariaren (Gipuzkoataria) barruan dago integratuta, administrazio publikoentzat eskuragarri dagoen Interneteko beste zerbitzu bat bezala, eta bertara sartzeko ezinbestekoa da nortasuna elektronikoki egiaztatzea.

Nortasuna egiaztatuta, sarbide-baimenak kudeatzen dituen sistema informatikoak egiaztatuko du autentifikatutako pertsonak zerbitzu hori erabiltzeko baimena duen ala ez. Erantzuna baiezkoa bada, baimendutako erabiltzaileak dagozkion kontsultak egin ahal izango ditu. Hala bada, baimendutako erabiltzaileak dagozkion kontsultak egin ahal izango ditu bi irizpide hauetakoren batek mugatuta:

1.- Ondasun higiezin bere udalerrian egotea.

2.- Kontsultatu nahi den eskritura publikoaren datu klabeak sartzea.

60A, declaración-liquidación actos jurídicos documentados (documentos notariales y administrativos):

DN0 Segregación, división, agregación y agrupación

DN1 Declaración de obra nueva

DN2 División horizontal

DN3 Entregas sujetas a IVA: viviendas

DN4 Entregas sujetas a IVA: locales comerciales

DN5 Entregas sujetas a IVA: pabellones

DN6 Entregas sujetas a IVA: otras edificaciones

DN7 Entregas sujetas a IVA: terrenos

En principio, se facilitará al cesionario únicamente la información referida a los bienes inmuebles urbanos y rústicos ubicados en su término municipal y el acceso a las escrituras públicas digitalizadas en las que se documenten las operaciones arriba descritas que les afecten.

En todo caso, se permitirá el acceso al resto de las escrituras públicas digitalizadas por el departamento, siempre que el propio cesionario facilite los datos que a tal efecto se requieran (clave de notario, año y protocolo) para identificar la escritura objeto de consulta.

6. Procedimiento para el suministro.

La información está integrada dentro del portal de trámites online (Gipuzkoataria) de la Sede Electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa como un servicio más de Internet disponible para las administraciones públicas, al que se accede previa acreditación electrónica de la identidad.

Acreditada la identidad, el sistema informático que gestiona los permisos de acceso comprobará si la persona autenticada tiene autorización para utilizar dicho servicio. En caso afirmativo, el/la usuario/a autorizado/a podrá realizar las consultas correspondientes que, en todo caso, estarán limitadas por alguno de los siguientes criterios:

1.- Pertenencia del bien inmueble al término municipal.

2.- Introducción de los datos clave de la escritura pública objeto de consulta.

7. Lagapenaren aldizkakotasuna eta eragiten dien pertsonen kopurua.

Informazioa on-line ikusi ahal da, baina 60A eta 60T ereduetan aitortutako eskualdaketei eta eragiketei dagozkien datuak, eta eskritura digitalizatuak, hamabostean behin kargatuko dira.

8. Emandako datuak 3. bati lagatzea aurreikusten da.

EZ

9. Emandako informazioan sartzeko baimendutako pertsonak:

Izen-deiturak, eta email (2 gutxienez; arduraduna ez dena)

10. Erabiltzaileen kudeaketaz eta utzitako informazioaren segurtasunaz eta kontrolaz arduratuko den organoa (5. klausula):

Izen-deiturak, e-posta eta telefonoa

11. Solaskideak:

- -----Udaletxetik: _____
- Informatika gaietarako: IZFE, SA / Udaletako Bezeroen Arduraduna
- Ogasun eta Finantza Departamentutik: Zerga Arloko Eraldaketa Teknologikoko Zerbitzua

Alde biek eranskin honetan jasotako datuak eguneratzeko konpromisoa hartzen dute.

12. Bestelako eginkizunak.

Ogasun eta Finantza Departamentuak eta Gipuzkoako lurralde historikoko udalek informazioa elkarri lagatzeko lankidetzaz hitzarmenaren HAMAIRUGARREN klausulan jasotzen den informazioa sistema tradizionalen bidez bidaltzeko ez eskatzeko eta herritarri ekarpen indibidualik egiteko ez eskatzeko konpromisoaz gain, udal hartzaileak konpromiso hauek ere hartzen du:

- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Departamentuari jakinaraziko dio

7. Periodicidad del suministro y número de personas afectadas.

La información se suministra on-line, si bien la carga de los datos referidos a las transmisiones y operaciones declaradas en los modelos 60A y 60T y de las escrituras digitalizadas será quincenal.

8. Previsión de ulteriores cesiones de los datos suministrados.

NO

9. Personas autorizadas para acceder a la información suministrada:

Nombre y apellidos, y email. (2 mínimo; que no sea el responsable)

10. Órgano responsable de la gestión de usuarios/as y de la seguridad y del control de la información cedida (cláusula 5ª):

Nombre y apellidos, puesto de trabajo, e-mail y teléfono

11. Interlocutores/as:

- Del Ayuntamiento -----: -----
- Para cuestiones informáticas: IZFE, SA. Responsable de clientes de Ayuntamientos
- Del Departamento de Hacienda y Finanzas: El Servicio de Transformación Tecnológica Tributaria

Ambas partes se comprometen a mantener actualizados los datos contenidos en el presente anexo.

12. Otros compromisos.

Además del compromiso de no exigir la remisión de la información por sistemas tradicionales ni su aportación individual al ciudadano recogido en la cláusula DECIMOTERCERA del convenio de colaboración en materia de cesión recíproca de información entre el Departamento de Hacienda y Finanzas y los ayuntamientos del territorio histórico de Gipuzkoa, el ayuntamiento cesionario se compromete a:

- Comunicar al Departamento de Hacienda y Finanzas cuantas

BOZKETA.- AHO BATEZ ONARTU DA PROPOSAMENA.

6.- IRURAKO UDALA ETA IRURA MORETUZ ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Alkateak hartu du hitza eta gaia diktaminatu gabe dagoenez leheneago bozkatu egin da eta aho batez onartu da gaia tratatzeko erabakia.
Ondoren proposamena azaldu du;

BERDINTASUN BATZORDEAREN PROPOSAMENA

<u>AKTA ZENB.</u>	<u>ORRIALDEA</u>	<u>DATA</u>	<u>GAIAK</u>
2023/01	1/1	2023-03-14	2.- IRURA MORETUZ EMAKUME TALDEAREN HITZARMENA

Berdintasun batzordeak, 2023ko martxoaren 10ean eginiko bileran gai hau aztertu du:

“IRURA MORETUZ ELKARTEARI 2023KO DIRU-LAGUNTZAREN ESKAERA ONARTZEKO PROPOSAMENA”

2023ko otsailaren 13an Irura Moretuz elkarteak, diru laguntza eskaera egin zuen gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko, emakumeen ahaldunderako, indarkeria matxistaren aurka jarduteko, feminismoaren hedapenerako elkargune izateko eta hainbat ekimen antolatzeke.

Eskaera horretan, elkarteak ez zuen diru kopururik zehaztu, baina 2023ko berdintasun sailaren aurrekontua egiterakoan, udalak 3.000€ gorde zituen elkarte honek antolatutako ekintzak finantzatzeko, oraingo kasuan bezala.

Berdintasun batzordean gaia aztertu da, baina Cristina Santos, EAJ-ko ordezkaria ez da bertan egon.

Hau dela eta, Udalbatzarrari proposatzen zaio:

1.- Irura moretuz hitzarmenaren gaia tratatzea eta ondoren hitzarmena onartzen den edo ez bozkatzea.

2.- 2023ko aurrekontuko 1 0000.480.230.00.10 partidako eta Irurako Dirulaguntzen plan estrategikoan jasota dagoen bezala (2022-2024) 3.000€ak Irura Moretuz elkarteari diru laguntza emateko bideratzea, aipatutako zenbatekoaren %70 hitzarmena izenpetutakoan eta gainerako %30 gastuen eta sarreren balantzea aurkeztutakoan ordainduz.

Irura, 2023ko martxoaren 14an

IRURAKO UDALA ETA IRURA MORETUZ ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA

Iruran, 2023ko martxoaren Xan.

SINATZAILEAK

Alde batetik, MARIA BEGOÑA VAZQUEZ MARIN adinez nagusia, 35778063E nortasun agiria duena, Iruran, c. etxezarreta kalea 11, p01. eskubian helbideratua eta G09803875 Identifikazio Fiskaleko Zenbakia duen Irura Moretuz feminismoaren sustapenerako elkartearen izenean.(. Estatutu hauek kontratu honi eransten zaizkio 1. Zenbakiarekin).

Bestetik, GORKA MURUA MACUSO, Irurako Udaleko alkate-lehendakaria, egintza honetan udal idazkaria den IRANTZU ARRIZABALAGA GAINZAK lagundurik.

Bi aldeek hitzarmen hau egiteko gaitasun nahikoa eta kasuan kasuko ordezkaritza aitortzen diote elkarri eta eragin horretarako ondokoa

AZALDU DUTE

Irura Moretuz feminismoaren sustapenerako Elkarteak hitzarmen honen diru ekarpenarekin emakumeen ahalduntzea eta herritarren sentsibilizazioa sustatzeko ekintzak garatuko dituela helburu hauekin:

Lehena.- Irura Moretuz feminismoaren sustapenerako elkarte da. Herrian sortua, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko, emakumeen ahalduntzerako, indarkeria matxistaren aurka jarduteko, feminismoaren hedapenerako eta herritarrengan sentsibilizazioa lantzeko elkargune izateko.

Bigarrena.- Irurako Udalak bat egiten du elkarte honek proposatutako gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko, emakumeen ahalduntzerako, indarkeria matxistaren aurka jarduteko, feminismoaren hedapenerako eta herritarrengan sentsibilizazioa lantzeko helburuekin.

Hirugarrena.- Hitzarmen hau, Irurako Udalak 2023ko martxoaren Xan egin zen Osoko Bilkuran onartu zen.

Irurako Udalbatza Plenoak, 2021eko apirilaren 27an egindako bilkuran, udal honek ematen dituen dirulaguntzak arautzeko Ordenantza onartu zuen. Ordenantza honen III. Kapituluaren 12. Atalean, Dirulaguntzak zuzenean ematea arautzen dira, Herri-Administrazioetako Dirulaguntzak arautzen dituen azaroaren 17ko 38/2003 Legean xedaturikoaren arabera.

Laugarrena.- Maria Begoña Vazquez andreak adierazten du, bere ardurapean, bera eta ordezkatzan duen elkarte ez daudela azaroaren 17ko 38/2003 Diru Laguntzen Lege Orokorren 13. artikulua xedatzen duen egoeran.

Bostgarrena.- Bestaldetik, Toki Ondasunen Erregelamendua arautzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege-Dekretuko 109.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, udalek zeditu ahal izango dituzte beren ondare-izaerako ondasunak, beti ere baldintza hauek kontuan harturik:

-lagapenaren esleipendunak irabazi asmorik gabeko eta herri-intereseko erakundea izan behar du.

Lagapenak udalerriko biztanleen onura izan behar du helburua

Aurrez adierazitakoa eta bi aldeek arteko lankidetzaren udalerrientzat onuragarria dela ikusirik, Irurako Udalak eta Irura Moretuz Elkarteak erabaki dute lankidetzaren hitzarmen hau izenpetzea ondorengo klausula hauei loturik:

KLAUSULAK

LEHENA.- Hitzarmenaren xedea: Irura Moretuz Elkarteak hainbat ekintza eramango ditu aurrera 2022 urtean, emakumeen ahalduntzerako eta herritarrengan sentsibilizazioa lantzeko.

URTARRILA	OTSAILA	MARTXOA
------------------	----------------	----------------

		<ul style="list-style-type: none"> - M8ko ekitaldiak aurrera eramatea - Herriko jaietan eraso sexistak prebenitzeko parte hartze prozesuan parte hartzea.
--	--	---

APIRILA	MAIATZA	EKAINA	UZTAILA
<ul style="list-style-type: none"> - Kirol astean, generoa landuko duen hitzaldiren bat txertatu. - Herriko jaietan eraso sexistak prebenitzeko parte hartze prozesuan parte hartzea. 	<ul style="list-style-type: none"> - LGTBI egunerako ekintzak. - Herriko jaietan eraso sexistak prebenitzeko parte hartze prozesuan parte hartzea. 	<ul style="list-style-type: none"> - Herriko jaietan eraso sexistak prebenitzeko parte hartze prozesuan parte hartzea. 	<ul style="list-style-type: none"> - Herriko beste eragileekin batera uzta giro festaren antolaketan laguntzea

IRAILA	URRIA	AZAROA	ABENDUA
<ul style="list-style-type: none"> -Talde barruko hornikuntza -Jabetze eskolako 1. azoka 	<ul style="list-style-type: none"> -emakumeen azoka antolatzea 	<ul style="list-style-type: none"> - A25eko ekitaldiak - Jabetze eskolako 2.ekintza 	

Ekintza horiek finantzatzeko eta diru-sarrerak lortzeko, elkarteak duen aukera bakarra da hainbat ekintzari sarrera-tasa ipintzea. Hori dela eta, udalari babes ekonomikoa eta kasuan-kasu baliabide publikoen erabilpena eskatuko dizkio.

- Irura Moretuz elkartearen betebeharrak:
 - Diruz lagunduko diren proiektuak gauzatzea.
 - Proiektu horiei buruzko unean uneko informazioa ematea Udalari.
 - Elkarteak, herriari zuzendutako ekintza guztietan Udalaren laguntza eta babesa jasotzen duela adieraziko du.
 - Urtearen bukaeran, proiektuen gauzatze-mailari buruzko txostena aurkeztea eta diru-kontuak egoki zuritzea.
- Irurako Udalaren betebeharrak:
 - Dirulaguntzaren ordainketa zehaztutako modu eta garaien egitea.
 - Irura Moretuzekin elkarlanean, ekitaldi bat antolatzea adostutako datan, egindako lanaren berri emateko balioko duena eta herritarrak sentsibilizatzeko helburua izango duena

BIGARRENA.-Diru laguntzaren kopurua eta ordaintzeko era: Irurako Udalak 3.000 euro arteko dirulaguntza onartuko du Irura Moretuz Elkartearentzat, aipatu dituen eta herritar guztion ongizaterako interesgarriak diren helburuak betetzeko programatutako ekintzak burutzeko.

Dirulaguntza hori kreditu honetatik ordainduko da:
2023ko udalaren aurrekontuaren Partida: 1.0000.480.230.00.10.

Udal honek aipatutako zenbatekoaren %70 ordainduko dio Irura Moretuz Elkarteari hitzarmena izenpetutakoan, eta gainerako %30 gastuen eta sarreren balantzea aurkeztutakoan.

HIRUGARRENA.- Dirulaguntza justifikatzeko epea eta modua: 2024ko urtarrilaren 31rako, elkarteak 2023. urtean egin dituen ekintzen memoria eta balantze ekonomikoa aurkeztu beharko ditu, fakturen eta bestelako agirien kopiak erantsita; eta jasotako beste edozein administraziok edo erakunde publiko zein pribatuk xede bererako emandako diru laguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabideekiko bateragarritasuna edo bateraezintasuna aztertu ondoren, Udalak zuriketa proposamena egingo du.

LAUGARRENA.- HIZKUNTZA BETEBEHARRAK. Erakunde onuradunak udalarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak euskaraz izango dira. Erakunde onuradunak diruz lagundutako jardueran argitaratzen diren idatzi, iragarki, ohar eta gainerako komunikazioak orokorrean euskaraz ezagutarazi beharko ditu, eta publizitatearekin ere, ahozko zein idatzia izan, berdin jokatuko du. Hala ere, diru laguntzen lerro bakoitzaren deialdian edo dagokion hitzarmenean jarduera mota bakoitzari dagokion hizkuntza irizpide berezituak zehaztuko dira.

Irura Moretuzek Udalaren hizkuntza jarduera arautzeko planen arabera jokatuko du, printzipio hauek oinarri hartuta:

Proporzionaltasun-printzipioa bermatuko du, diruz lagundutako jardueraren ezaugarrien, xedearen eta hartzaileen arabera.

Hizkuntza irizpideak diruz lagundutako jarduerari lotuta egongo dira.

Diruz lagundutako jardueren komunikazioak edo argitalpenak egin behar direnean, lehenetsuna emango zaio euskarari.

Irura Moretuz Elkarteak ordezkariek Udalarekin ahozko eta idatzizko harremanak euskaraz izango dituzte, hori baita administrazio honen lan hizkuntza.

Eta zalantzak argitzeko edo laguntza eskatzeko aukera izango dute Udalaren Euskara departamentura joz.

BOSGARRENA.- GENERO-BERDINTASUNAREN ARLOKO BETEBEHARRAK.

Pertsona onuradunak aplikatzekoa zaion indarreko araudi guztia errespetatu beharko du; eta bereziki Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea. Erakunde onuradunak diruz lagundutako jardueran honako printzipio orokorrak bete beharko ditu:

a) Hizkera inklusiboa eta irudi ez sexistaren erabilera dokumentazio, euskarri eta errotulazio guztian.

b) Berdintasunean eragin positiboa izatea bermatzea.

Genero ikuspegia eta parekidetasun irizpideak txertatzea proiektuetan.

c) Proiektu eta memorietan sexuagatik desagregatutako datuak erabiltzea. Diru laguntzen lerro bakoitzaren deialdian edo dagokion hitzarmenean jarduera mota bakoitzari dagokion berdintasun irizpide bereziak zehaztuko dira.

d) Irura Moretuzek genero-ikuspegia kontuan hartu beharko du, ondorengoak betez:

e) Jarduerak sustatzeko egiten dituen kartel, testu eta agiri-tako edukitan hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista egin beharko du.

f) Ez du sortuko sexuagatik bereizkeria zuzena edo zeharkakoa eragiten duen jarduerarik.

SEIGARRENA.- INGURUMEN BETEBEHARRAK.

Pertsona edo erakunde onuradunek, oro har, ingurumeneko irizpideak hartu beharko dituzte kontuan ondorengo alorretan:

a) Aurrezte eta energia eraginkortasuna.

b) Hondakin frakzio ezberdinen sailkatze egokia, horiek sortzeari aurrea hartzeaz gain.

c) Tokiko aniztasunari kalterik ez sortzea (habitat naturalak, espezieak eta prozesu ekologikoak).

d) Mugikortasun iraunkorra sustatzea.

e) Indarrean dagoen araudiak ezarritako gehieneko mugaz gaindiko zaratarik ez sortzea eta herritarrekiko eta ingurumenarekiko kalitate akustikoa bermatzea. Diru laguntzen lerro bakoitzaren deialdian edo dagokion hitzarmenean jarduera mota bakoitzari dagokion ingurumen irizpide bereziak zehaztu ahal izango dira.

ZAZPIGARRENA.- IRURAKO UDALAK PREKARIOZ ZEDITUKO DUEN LOKALAREN ERABILPEN ARAUDIA

- Irura Moretuz Elkarteak oraingoz, Udalaren helbide berean izango du bere egoitza fiskala. ,

elkarteak leku egoki batean egonkorlu arte Trinketeko goiko solairuan armairu bat izango du materiala gordetzeko.

Udaletxeko ondasunen erroldan lokal hau honela deskribatzen da:

Helbidea Trinkete

Kalifikazioa: Kirol instalakuntza publikoa.

- Udalak aipatutako espazio hori Irura Moretuz Elkarteari doan lagatuko dio bere erabilpenerako. Lagapen hori prekarioz egingo da eta ezinbesteko baldintza izango da hitzarmen honetan adostutako jarduera garatzea.
- Udalak lokalari atxikitutako honako gastu hauek ordainduko ditu: ura, argia, gasa, hondakinen kuota, lokalaren aseguru eta alarma.
- Lokalaren garbitasuna erabiltzen duten elkarten artean egingo da.
- Espazio horretan ere Irura Bizi Elkarleak du egoitza. Horri dagokion erantzukizuna bien artekoa eta solidarioa izango da.
- Udalak lokal hori erabilera anitzeko instalazioa izatea nahi du, horregatik, beraz herriko beste taldeek ere erabiltzeko eskubidea izango dute. Dena den, Irura Moretuz Elkarleak erabilerarako lehentasuna izango du eta erabileraren inguruko auzirik gertatuko balitz, Udalak erabakiko du zer egin.
- Irura Moretuz Elkarleak lokala utzi den helbururako bakarrik erabiliko du eta ondo zaintzeko ardura bere gain hartzen du.
- Lokala modu egokian erabili beharko da eta ekipamendu edo instalazioen akats edo matxurarik gertatzen bada, Udalarari lehenbailehen jakinarazi beharko zaio.
- Ekipamendu edo instalazioen matxurei dagokienez, matxura erabilera arruntetik sortutakoa bada, Udalak bere gain hartuko du. Aldiz, erabilera desegokiaren ondoriozkoa bada, espazio hori erabiltzen duten Elkarleek bere gain hartuko dute.
- Hitzarmena, ezein indemnitazio-kopurutarako eskubiderik gabe bukatuko da.
- Udalak, interes publikoko arazoak medio, lagapena bertan behera utziko balu, esleipendunak ez luke inolako eskubiderik izango indemnitazioa jasotzeko.
- Udal honek Irura Moretuzi utziko dio, bi aldeek adostutako egutegi eta ordutegian erabiltzeko, trinketeko goiko solairuan dagoen armairua, biltegi modura erabiltzeko.

ZORTZIGARRENA.- Irura Moretuz elkarteari eta Irurako udalarari dagokie instalazioak eta azpiegiturak zaintzea eta egoera egokian eta erabili aurretik zeuden bezala uztea.

BEDERATZIGARRENA.- Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorrak ezarritakoaren arabera, onuradunak honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

-Nortasunaren egiaztagiria.

-Legearen 13. artikuluan adierazten diren egoeretan ez dagoela zinez aitortzea.

Foru Ogasun eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatuko duten ziurtagiriak.

Ordaintzeko modua zehaztuz baimendutako ordezkariak eginiko idatzia aurkeztea, behar denean.

HAMARGARRENA.- Irura Moretuzek ez badu hitzarmena betetzen, aurreikusitako laguntza indargabetzea ekarriko du, eta, hala badagokio, kontuan harturik zertan ez den bete eta hitzarmen honen xedea zein den, Udalarari itzuli egin beharko dio dirulaguntza guztia edo haren zati bat.

HAMAIKAGARRENA.- Hitzarmena sinatzen duten bi aldeek bere horretan eusten diete beren ahalmenei eta hartzen dituzten erantzukizunak hitzarmenean jasotako obligazio eta konpromiso horietatik, ez besterik.

Hitzarmenak eragina izango du eta sinatzaileak beharko ditu 2023ko martxoaren Xtik aurrera, eta urte beteko indarraldia izango du.

Adostasun seinale, hitzarmenaren bi ale sinatzen ditugu.

Honen guztiaren berri eta fede ematen dut nik, idazkariak, adierazitako data eta lekuan.

IRURAKO ALKATE

IRURA MORETUZ ELKARTEA

UDAL IDAZKARIA

BOZKETA.- AHO BATEZ ONARTU DA PROPOSAMENA.

7.- IRURAKO UDALA ETA IRURA BIZI ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Alkateak hartu du hitza eta adierazi du hitzarmenean 3.000€ jartzen duela, baina 5.500€ direla, orain arte egutegiaren kostua ez zuten bere gain hartzen eta errezagoa izango dela eta dirulaguntzaren aldaketa egiten da orain arteko baldintzetan.

IRURA BIZI ETA IRURAKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA

Iruran, 2023ko martxoaren 31an

BILDURIK

Alde batetik, GOIZARGI ORUESAGASTI OTAÑO adinez nagusia, 72474426-T nortasun agiria duena, Iruran, paper kalea 2, 1. eskubian helbideratua eta G75237818 Identifikazio Fiskaleko Zenbakia duen Irura Bizi Elkartearen izenean.

Eta bestetik, GORKA MURUA MACUSO, Irurako Udaleko alkate-lehendakaria, egintza honetan udal idazkaria den IRANTZU ARRIZABALAGA GAINZAK lagundurik.

PARTE HARTZEN DUTE

Goizargi Oruesagasti Otañok, Irura bizi Elkartearen ordezkartzan aurkezten dituen Estatutuen arabera. Estatutu hauek hitzarmen honi eransten zaizkio 1. zenbakiarekin.

Alkateak, Irurako Udalaren izenean eta ordezkartzan, 2022ko maiatzaren 31n egindako Osoko Bilkuran eman zitzaion ahalmenaren arabera.

Bi aldeek hitzarmen hau egiteko gaitasun osoa eta kasuan kasuko ordezkartza aitortzen dioteelkarri eta eragin horretarako ondokoa

AZALDU DUTE

Irura Bizi Elkarteak eta Irurako Udalak 2022an hitzarmena sinatu zuten. Hitzarmen honen diru ekarpenarekin hainbat ekintza eraman ditu aurrera Irura Bizik, aurkeztu duen memorian zehaz-

tu dituenak, herri-giroa sustatzeko eta herritarren arteko harremanak sendotzeko. Orain sinatuko den hitzarmen berri honek, funtsean, 2022ko hitzarmenaren eduki bera jasotzen du.

Lehenena.- Irura Bizi kultur, kirol eta gizarte sustapenerako elkarte da. Herrian sortua, herri-giroa sustatu eta herritarren arteko harremanak sendotzeko elkargune izateko.

Bigarrenena.- Irurako Udalak bat egiten du elkarte honek proposatutako herri-giroa sustatzeko eta harremanak sendotzeko helburuekin.

Hirugarrenena.- Hitzarmen hau, Irurako Udalak 2023ko martxoaren 28an egindako Osoko Bilkurak onartu du.

Laugarrenena.- Goizargi Oruesagasti andreak adierazten du, bere ardurapean, bera eta ordezkatzeko duen elkarte ez daudela azaroaren 17ko 38/2003 Diru Laguntzen Lege Orokorraren 13. artikulua xedatzen duen egoeran.

Bosgarrenena.- Toki Ondasunen Erregelamendua arautzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege-Dekretuko 109.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, udalek laga ahal izango dituzte beren ondare-izaerako ondasunak, beti ere baldintza hauek kontuan harturik:

-lagapenaren esleipendunak irabazi asmorik gabeko eta herri-intereseko erakundea izan behar du.

-lagapenak udalerriko biztanleen onura izan behar du helburua.

Aurrez adierazitakoa, eta bi aldeen arteko lankidetzat udalerrarentzat onuragarria dela ikusirik, Irurako Udalak eta Irura Bizi Elkarteak erabaki dute lankidetzat hitzarmen hau izenpetzea ondorengo klausula hauei loturik:

KLAUSULAK

LEHENENA.- Hitzarmenaren xedea da Irura Bizi Elkarteak hainbat ekintza eramatea aurrera 2023 urtean, herri-giroa sustatzeko eta herritarren arteko harremanak sendotzeko:

URTARRILA	OTSAILA	MARTXOA
	-Otsailak 1: elkarteko bilera orokorra.	-

APIRILA	MAIATZA	EKAINA	UZTAILA
Kirol Astearen barruan: - Bizikleta jarduerak. - Skate ikastaroa. - Apirila-ekaina: helduentzako plazako dantzen ikastaroa.	- Maiatzak 12? (Ikastolaren Egunaren biharamunean): txori-kanten ikastaroa. -Maiatzaren 21 inguruan: Kultur aniztasunaren astea.	- Ekainak 3: gaueko familia irteera Loatzora. -Ekainak 23: San Juan bezperako barrikotea. Udalarekin elkarlanean. Helduen plazako dantzen emanaldia.	-Uztailak 1: Uzta festa. Bazkaria eta musika.
IRAILA	URRIA	AZAROA	ABENDUA

<p>-Irailak 29: Udako postal lehiaketako sari-banaketa.</p>	<p>- Urriak 22: ardo-dastaleta eta 2.eskuko azoka -Urriak 31: Arimen Gaua.Ikastola, Ludo-teka eta den-da/tabernekin elkarlanean.</p>	<p>- Abentura astea.</p>	<p>-Bertso-babarrun bazkaria. Gazte Alaiak elkartearekin elkarlanean. -2024ko egutegia osatzeko argazki-lehiaketa. Sari-banaketa abenduaren 24an.</p>
---	--	--------------------------	---

Ekintza horiek finantzatzeko eta diru-sarrerak lortzeko, elkarteak duen aukera bakarra, hainbat ekintzari sarrera-tasa ipintzea da. Hori dela eta, udalari babes ekonomikoa eta baliabide publikoen erabilpena eskatuko dizkio.

• **irura Bizi elkartearen betebeharrak:**

- 0 Diruz lagunduko diren proiektuak gauzatzea.
- 0 Proiektu horiei buruzko unean uneko informazioa ematea Udalari.
- 0 Elkarteak, herriari zuzendutako ekintza guztietan Udalaren laguntza eta babesajasetzen duela adieraziko du.
- 0 Udalarekin elkarlanean, ekitaldi bat antolatzea adostutako datan, egindako lanarenberri emateko balioko duena eta herritarrak sentsibilizatzeko helburua izango duena.
- 0 Urtearen bukaeran, proiektuen gauzatze-mailari buruzko txostena aurkeztea eta diru-kontuak egoki zuritzea.

• **Irurako Udalaren betebeharrak:**

- 0 Dirulaguntzaren ordainketa zehaztutako modu eta garaian egitea.
- 0 Irura Bizirekin elkarlanean, ekitaldi bat antolatzea adostutako datan, egindako lanarenberri emateko balioko duena eta herritarrak sentsibilizatzeko helburua izango duena.

BIGARRENA.- Diru-laguntzaren kopurua eta ordaintzeko era: Irurako Udalak 3.000 euro arteko dirulaguntza onartuko du Irura Bizi Elkartearentzat, aipatu dituen eta herritar guztion ongizaterako interesgarriak diren helburuak betetzeko programatutako ekintzak burutzeko.

Dirulaguntza hori kreditu honetatik ordainduko da:

2023ko udalaren aurrekontuaren partida: 1 0000.481.334.00.00 2023 (1380).

Udal honek aipatutako zenbatekoaren %70 ordainduko dio Irura Bizi Elkarteari hitzarmena izenpetutakoan, eta gainerako %30 gastuen eta sarreren balantzea aurkeztutakoan.

HIRUGARRENA.- Dirulaguntza justifikatzeko epea eta modua: 2024ko urtarrilaren 31rako, elkarteak 2023ko ekitaldian egin dituen ekintzen memoria eta balantze ekonomikoa aurkeztu beharko ditu, fakturen eta bestelako agirien kopiak erantsita; eta jasotako beste edozein administrazioak edo erakunde publiko zein pribatuk xede bererako emandako diru-laguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabideekiko bateragarritasuna edo bateraezintasuna aztertu ondoren, eta udalak diru-laguntzaren zuriak proposamena egingo du.

LAUGARRENA.-HIZKUNTZA BETEBEHARRAK

. Erakunde onuradunak udalarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak euskaraz izango dira. Erakunde onuradunak diruz lagundutako jardueran argitaratzen diren idatzi, iragarki, ohar eta gainerako komunikazioak orokorrean euskaraz ezagutarazi beharko ditu, eta publizitatearekin ere, ahozko zein idatzia izan, berdin jokatuko du. Hala ere, diru laguntzen lerro bakoitzaren deialdian edo dagokion hitzarmenean jarduera mota bakoitzari dagokion hizkuntza irizpide berezituak zehaztuko dira.

Irura Bizik Udalaren hizkuntza jarduera arautzeko planen arabera jokatu du, printzipio hauek oinarri hartuta:

Proporzionaltasun-printzipioa bermatuko du, diruz lagundutako jardueraren ezaugarrien, xedearen eta hartzailen arabera.

Hizkuntza irizpideak diruz lagundutako jarduerari lotuta egongo dira.

Diruz lagundutako jardueren komunikazioak edo argitalpenak egin behar direnean, lehenasuna emango zaio euskarari.

Irura Bizi Elkarteko ordezkariak Udalarekin ahozko eta idatzizko harremanak euskaraz izango dituzte, hori baita administrazio honen lan-hizkuntza.

Eta zalantzak argitzeko edo laguntza eskatzeko aukera izango dute Udalaren Euskaradepartamentura joz.

BOSGARRENA.- GENERO-BERDINTASUNAREN ARLOKO BETEBEHARRAK.

Pertsona onuradunak aplikatzekoa zaion indarreko araudi guztia errespetatu beharko du; eta bereziki Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea. Erakunde onuradunak diruz lagundutako jardueran honako printzipio orokorrak bete beharko ditu:

- a) Hizkera inklusiboa eta irudi ez sexistaren erabilera dokumentazio, euskarri eta errotulazio guztian.
- b) Berdintasunean eragin positiboa izatea bermatzea.
Genero ikuspegia eta parekidetasun irizpideak txertatzea proiektuetan.
- c) Proiektu eta memorietan sexuagatik bereizitako datuak erabiltzea. Diru-laguntzen lerro bakoitzaren deialdian edo dagokion hitzarmenean jarduera mota bakoitzari dagokion berdintasun irizpide bereziak zehaztuko dira.
- d) Irura Bizik genero-ikuspegia kontuan hartu beharko du, ondorengoak betez:
- e) Jarduerak sustatzeko egiten dituen kartel, testu eta agirietako edukitan hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista egin beharko du.
- f) Ez du sortuko sexuagatik bereizkeria zuzena edo zeharkakoa eragiten duen jarduerarik.

SEIGARRENA.- INGURUMEN BETEBEHARRAK.

Pertsona edo erakunde onuradunek, oro har, ingurumeneko irizpideak hartu beharko dituzte kontuan ondorengo alorretan:

- a) Aurrezte eta energia eraginkortasuna.
- b) Hondakin-frakzio ezberdinen sailkatze egokia, horiek sortzeari aurrea hartzeaz gain.
- c) Tokiko aniztasunari kalterik ez sortzea (habitat naturalak, espezieak eta prozesu ekologikoak).
- d) Mugikortasun iraunkorra sustatzea.
- e) Indarrean dagoen araudiak ezarritako gehieneko mugaz gaindikoa zaratarik ez sortzea eta herri-tarrekiko eta ingurumenarekiko kalitate akustikoa bermatzea. Diru-laguntzen lerro bakoitzaren deialdian edo dagokion hitzarmenean jarduera mota bakoitzari dagokion ingurumen- irizpide bereziak zehaztu ahal izango dira.

ZAZPIGARRENA.- IRURAKO UDALAK PREKAZIOZ LAGAKO DION LOKALAREN ERABILPEN ARAUDIA

Irura Bizi Elkartek udalaren helbide berean izango du bere egoitza soziala. Elkartek leku egoki batean egonkortu arte, bi aldeek adostutako egutegi eta ordutegian erabiltzeko, trinketeko goiko solairuan dagoen bulegoa erabiltzen jarraitu ahalko du. Lokal honen emakidaren iraupenak honako zehaztasun hau jasoko du: epe honen bukaera Haurreskola gaineko erabilera anitzeko lokalak zabalatzeko emakida aldaketaren bukaera datarekin bat egingo du, eta emakidaren baldintzak, lokal berrira transmitituko dira.

Emakiden gehieneko iraupena lauogeita hemeretzi urtekoa izango da, araudi bereziak beste epe laburrago bat ezartzen ez badu.

ZORTZIGARRENA.- EMAKIDAREN BESTE BALDINTZAK:

- a) Eraikina udal jabegokoa izango da.
- b) Emakida jabetza eskubidearen eta hirugarrenen eskubideen kalterik gabe ulertu behar da.

- c) Emakida epea amaitzen denean, emakidadunak Irurako udalaren jabetzan utzi beharko ditu eraikinean exekutaturiko obrak.
- d) Emakida epea amaitzen denean, emakidaduna erabilitako eraikina udalaren esku uztera derrigortua egongo da eta udalari bere kabuz hura bidaltzeko erabakia hartzeko eta exekutatzeko ahalmena onartuko dio.
- e) Emakidaren esleipendunak segurtasun- eta osasun-egoera onean eta egokitasun publikoko egoera onean eduki behar ditu emandako ondasun higieztina zein haren instalazioak.
- f) Emakidaren esleipendunak arrisku anitzeko aseguruia sinatu behar du udal-ondareak eta horretan egiten diren lanek, eraikinek eta instalazioek kalterik ez jasatea bermatzeko.
- g) Emakidaren esleipendunaren ardura izango dira udal-ondarea zein hango lanak, eraikitako eraikuntzak eta instalazioak erabiltzean pertsona eta ondasunek jasan ditzaketan doluzko zein erruzko kalteak.
- h) Emakidaren esleipendunak udal-ondarearen gainean eraikitako eraikin eta instalazioei aplikak dakiekeen sektore-legedi guztia bete beharko du.
- i) Esleipendunaren betebeharra da emandako ondasuna baimendutako helburuetarako baka-rik erabiltzea, eta helburu horretarako esleipendunak berak erabili behar du; ezin dio jabari publikoko emakida inori laga edo eskualdatu udalaren baimenik gabe.

BEDERATZIGARRENA.- JABARI PUBLIKOKO ERABILERA PRIBATUAREN EMAKIDAK IRAUNGO DA HONOKO ARRAZOIENGATIK, EGOKITZAT JOTZEN DEN KONTRAESAN-ESPEDIENTEA IZAPIDETU ETA GERO:

a) Emakida iraungitzearen udal-adierazpena, arrazoi hauengatik:

- Indarraldiaren epea amaitu delako.
- Emakidaren xede den ondasunen erabilerari buruzko baldintza bete ez delako.
- Emakidan jasotzen diren betebeharrak, baldintzak eta helburuak ez direlako bete.

b) Kontzesiodunak uko egin diolako.

HAMARGARRENA ARAUBIDEAK: Emakida honako hauetan arautuko da:

- Emakida –hitzarmen honetan.

- Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legea, Toki Erakundeek betebeharrekoa, eta ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuak onetsitako Toki Erakundeen Ondasunen Araudia, aurrekoarekin kontraesanean ez dagoen guztian.

- Aplikagarriak diren gainontzeko araudi orokorrak.

HAMAİKAGARRENA.- Irura Bizi elkarteari eta Irurako Udalari dagokie instalazioak eta azpiegiturak zaintzea eta egoera egokian eta erabili aurretik zeuden bezala uztea.

Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorrakezarritakoaren arabera, onuradunak honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

-Nortasunaren egiaztagiria.

-Legearen 13. artikuluan adierazten diren egoeretan ez dagoela zinez aitortzea.

Foru Ogasun eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean dituelaegiaztatuko duten ziurtagiriak.

Ordaintzeko modua zehaztuz baimendutako ordezkariak eginiko idatzia aurkeztea, behar denean.

HAMABIGARRENA.- Irura Bizik ez badu hitzarmena betetzen, aurreikusitako laguntza indargabetzea ekarriko du, eta, hala badagokio, kontuan harturik zertan ez den bete eta hitzarmen honen xedea zein den, Udalari itzuli egin beharko dio dirulaguntza guztia edo haren zati bat.

HAMAHIRUGARRENA.- Hitzarmena sinatzen duten bi aldeek, bere horretan eusten diete beren ahalmenei, eta hartzen dituzten erantzukizunak hitzarmenean jasotako obligazio eta konpromiso horietatik dira, ez besterik.

Hitzarmenak eragina izango du eta sinatzaileak beharko ditu 2023ko martxoaren 31tik aurrera, eta urte beteko indarraldia izango du.

Adostasunaren seinale, hitzarmenaren bi ale sinatzen ditugu.

Honen guztiaren berri eta fede ematen dut nik, idazkariak, adierazitako data eta lekuan.

IRURAKO ALKATEA

IRURA BIZI ELKARTEA

UDAL IDAZKARIA

BOZKETA.- AHO BATEZ ONARTU DA PROPOSAMENA.

8.- IRURAKO UDALA ETA GALTZAUNDI EUSKARA TALDEAREN ARTEKO HITZARMENA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Alkateak, urtero ematen den proposamenaren azalpenak eman ditu.

Euskara batzordeak, 2023ko martxoaren 21ean eginiko bileran gai hau aztertu zuen:

4- Erakundeei dirulaguntza: hitzarmenak onartzeko proposatzea.

Udaleko euskara teknikariak, Galtzaundi Euskara Taldeari 2023ko dirulaguntza emateko eta hitzarmena sinatzeko proposamena aurkeztu du.

Hitzarmen honen helburua da Irurako Udalaren eta Galtzaundi Euskara Taldearen artean lankidetzaren eremu egonkorra ezartzea, Galtzaundi Euskara Taldeak Irurako euskararen normalizazioan, erabileran, aktibazioan zein kudeaketan eragiteko prestatu duen 2023ko egitasmoa babestu, sustatu eta elkarlanean garatzeko.

Batzordeak aztertu du hitzarmena eta, quorum nahikoarekin, aho batez erabaki du Udaltzako onar dezan proposatzea. Testu osoa doa erantsita.

Batzordeak honako hau erabaki du:

1. Galtzaundi Euskara Taldeari 2023 urterari dagokion 3.050 euroko dirulaguntza ematea eta hitzarmena sinatzea proposatzea, Udaltzako Osoko Bilkuran onar dezan.
2. Erabakia Galtzaundi Euskara Taldeari jakinaraztea.

HITZARMENA:

2023KO HITZARMENA, IRURAKO UDALAREN ETA GALTZAUNDI EUSKARA TALDEAREN ARTEKOA

Iruran, 2023ko martxoaren 28an, sinadura elektronikoen egunean

ELKARTURIK

Alde batetik, Gorka Murua Macuso, NAN:44142319Y, Irurako Udaleko alkatea, Udaleko idazkari Irantzu Arrizabalaga Gainzak lagunduta, martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.2 i) artikulua araberara, fede publikoa emateko.

Eta bestetik, Endrike Amonarriz Gorria, NAN: 72.432.083T, Galtzaundi Euskara Taldearen lehendakaria (IFK: G-20371456; egoitza soziala: Tolosako Nafarroa etorbidea 6).

ESKU HARTZEN DUTE

Lehenengoak, Irurako Udalaren izenean eta ordezkartzan, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 artikuluan ezarritako eskumenekin bat etorrira, eta horretarako behar bezala ahalmenduta, **2023ko martxoaren 28ko ohiko** Osoko Bilkuran.

Bigarrenak, Galtzaundi Euskara Taldearen (aurrerantzean Galtzaundi) lehendakari gisa, 2019ko maiatzaren 9ko batzar orokorrak hartutako erabakiaren arabera.

Bi aldeek hitzarmen hau egiteko behar adinako legezko gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta ondorio horretarako

AZALTZEN DUTE

I.- Herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko ahaleginean, Irurako Udalak eta Galtzaundik bat egiten dutela euskararen erabilera eta normalizazioan eragiteko premiarekin eta helburuekin.

II.- Galtzaundik egunean dituela zerga-betebehar guztiak eta egunean dagoela Gizarte Segurantzarekin.

III.- Galtzaundik ez daukala debekurik dirulaguntzak jasotzeko. Debeku horiek Lege honetan daude jasota: 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa; 13. artikulua 2. eta 3. zenbakiak.

IV.- Bere estatutuekin bat etorritik, Galtzaundiren xedea bat datorrela hitzarmen honen bidez emango den dirulaguntzaren xede eta helburuekin.

V.- 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 25. artikuluan honela dioela: "Udalerririk, bere interesak kudeatzeko eta bere eskumenean esparruan, auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jarduera-mota guztiak bultzatu eta nahi adina zerbitzu publiko egin ditzake".

VI.- Era berean, 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, 17. artikuluan, udalerrien eskumen propioak zeintzuk diren aipatzen dituela, horien artean, Euskararen erabilera sustatzeko udal planak idatzi, onartu eta kudeatzea, lege horren 7. artikuluan xedatutakoa gorabehera. Horretarako, euskal administrazio publikoek, koordinazioko eta lankidetzako, gizarte-ekimenaren sustapeneko eta baliabideen aprobetxamendu osoko, arrazional eta eraginkorreko printzipioak aplikatuz, egoki gertatzen denetan, gizarte-ekimen pribatuak garatzen dituen gaitasunak eta baliabideak aprobetxatzen ahaleginduko dira.

VII.- 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, euskararen erabilera

sustatzeko, planifikatzeko eta dinamizatzeko eskumenak aitortzen dizkiela udalei, bai udal zerbitzuen alorrean, bai udalerriko bizitzaren eremu askotarikoetan ere. Bide horretan, aukera ematen zaie udalei bitartekoak jartzeko, baita bitarteko arauemaile eta ekonomia-finantzen alorrekoak ere, eta aukera, orobat, euskararen eremuan beste erakunde batzuekin lankidetzan edonolako formulak bilatzeko.

VII.- 2/2016 Legearen 7.2 artikulua arabera, udalei izendatzen zaiela, eskumen propio gisa, hartatik eratorzen diren ahalmen eta funtzioekin, beren lurralde-eremuan euskararen ezagutza sustatzeko eta erabilera dinamizatzeko eskumena, horretarako zerbitzuak eta jarduerak zuzenean antolatuz, edo beste pertsona edo erakunde batzuek euskara sustatu eta dinamizatzeko aldera burutzen dituzten jardueren finantzaketan lagunduz.

IX.- 2/2016 Legearen 7.5 artikulua arabera, toki-erakundeek euskararen arloan aitortuak dituzten eskumenak baliatzeko, hitzarmenak izenpetu ahal izango dituztela; mankomunitate, partzuergo, elkarte eta udalerriz gaindiko bestelako erakundeak sortu edo halakoetan esku hartu ahal izango dutela, eta elkarlanerako beste modu batzuetara jo ahal izango dutela, erakunde publiko eta pribatuekin.

X.-179/2019 Toki Araubidearen Dekretuaren 10. artikulua dio udalek euskararen ezagutza sustatu eta haren erabilera dinamizatzeko dutela beren lurralde-eremuan egiten diren jardueretan. Euskararen erabilera sustatu eta dinamizatzeko dutela, herritarrei zuzendutako prestazioetan ez ezik, sustapen-ekintzetan ere. Horretarako, gizarte-jarduerak finantzatzen lagunduko dutela, eta jarduera horietan euskara erabiltzea bultzatzeko dutela, jardueren xedeak eta ezaugarriak kontuan hartuta. Udalek neurriak planifikatzeko dituztela euskararen ezagutza sustatzeko eta euskararen erabilera soziala hedatzeko udal-eremuan, arlo hauetan bereziki: bide publikoko publizitatean, lan-jardueretan, lanbide-jardueretan, merkataritzan, kulturari, elkarte-jardueretan, kirolean, ikus-entzunezkoetan, zinema eta ikuskizunetan, jolas-jardueretan, entretenimendu-jardueretan, udal-eremuko prentsan eta prestakuntzan. Dekretu beraren 37. artikulua dio udalek beste entitate publiko edo pribatu batzuekin hitzarmenak sinatu ahal izango dituztela, euskararen ikaskuntza eta erabilera bultzatzeko.

XI.- Galtzaundik, bere normalizazio-lanen bidez, ezinbesteko ekarpena egiten diola Irurako Udalak euskararen erabilpena sustatzeko eta normalizazioan eragiteko onartuta duen plangintzari.

XII.- Bi aldeek, Irurako Udalak eta Galtzaundik, berretsi nahi dutela hitzarmen honen bidez, azken urteotan garatzen ari diren lankidetzak, aipatutako helburuekin egiten ari diren elkarlanari jarraipena eman, zeregin horretan sakondu eta eraginkortasuna areagotzeko, aintzat harturik lehen aipatutako 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeek buruzkoak, Udalarari ematen dizkion eskumenak eta Galtzaundi Euskara Elkartearen normalizazio-lanen egitasmoa.

XIII.- Galtzaundi irabazi asmorik gabeko elkarteak izanik, komenigarria dela egiten duen lan eskergari behar bezalako tratamendua ematen jarraitzea, eta, bide batez, bere geroa ziurtatu eta sendotzea.

XIV.- Aipatu den 38/2003 Legearen 22.2 artikulua arabera, dirulaguntza hau zuzenean emango dela, Irurako Udalaren 2023ko Aurrekontuan izenez aurreikusita dagoenez.

XV.- Irurako Udalak 2023ko martxoaren 28ko ohiko Osoko Bilkuran onartu duela hitzarmen hau egitea. Eta ados daudenez, bi aldeek hitzarmen hau formalizatu dute, ondoren zehazten diren klausulak ezarri.

KLAUSULAK

Lehena: Xedea.

Hitzarmen honen helburua da Irurako Udalaren eta Galtzaundi Euskara Taldearen artean lankidetzak

eremu egonkorra ezartzea, Galtzaundi Euskara Taldeak Irurako euskararen normalizazioan, erabileran, aktibazioan zein kudeaketan eragiteko prestatu duen 2023ko egitasmoa babestu, sustatu eta elkarlanean garatzeko.

Bigarrena: Diruz lagungarri diren jarduerak.

➤ **ANTOLAKETA ETA KOORDINAZIOA:**

- EUSKARA TEKNIKARIEN BATZORDEAN PARTE HARTU: (Anoeta, Irura, Ibarra, Tolosa Amasa-Villabona, Zizurkil eta UEMA-Tolosaldeko teknikariak): eskualde ikuspegiko proiektuak landu, eta bertan hartutako erantzukizunekin bete.
- TOLOSALDEKO EUSKARAREN MAHAIA KOORDINATU ETA GIDATU: eskualdeko hizkuntza politika berritzailea lantzeko foroa koordinatu eta kudeatu, bilerak landu eta bideratu, eta euskalgintzako eragile sozialen ahotsa bermatu bertan.

➤ **AKTIBAZIOA: E365E MARKOA**

- OINARRI SOZIALA ZABALDU ETA DINAMIZATU: Irurako boluntarioria sustatu, Galtzaundikide berriak egin, Irurako euskaltzaleen arteko harremanak indartu, eta eskualde arteko elkarlana bideratu, sistematizatu eta soziolinguistikan trebatzeko jarduerak antolatu, euskararen aldeko aktibista sare bat osatu urrats kualitatiboak emateko.
- EUSKARALDIAREN antolaketarako talde motorra prestatu eta eskualdeko beste herrietako taldeekin koordinatu, dagokionean.
- EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA: ekintza proposamena eta koordinazioa.
- HEZKUNTZA: Sektore Mahaia (HSM) dinamizatu eta bertan adostu eta taxututako ekimen edo proiektuak koordinatu edota kudeatu.

➤ **ALFABETATZE- EUSKALDUNTZEA:**

- KOORDINAZIO MAHAIA: eskualdeko eskaintza-eskaeraren ikuspegia izateko eta ekintza komunak diseinatzeko elkargunean (Aitzol, AEK, UEMA, Euskara Teknikariak...) parte hartu eta adostutako eginkizunak bete.
- MINTZALAGUNA: euskararen ahozko erabilera praktikatzeko parte-hartze programa. Eskualdeko beste taldeekin koordinatu, izenemate garaian ekitaldi bateratua antolatu eta partaideen hartumana indartzeko ekintza bateratua antolatu. Euskal Herrikoekin lotu.

➤ **JAKINTZA**

- IKERKETA: EUSKARAREN HISTORIA SOZIALA TOLOSALDEAN, 1833tik atzerako epealdia garatu.
- FORMAKUNTZA: kontzientziatze eta trebatze hitzaldiak, ikastaroak... Herritarrak trebatu eta kontzientziatzea helburua duten ekimenak: adituen proposamenak plazaratu, harreman guneak sortu, iritzi trukean eragin eta gizartea trinkotu.

➤ **ZEHARKAKOTASUNA: KOMUNITATEA TRINKOTZEA**

- EUSKARAREN NORMALIZAZIOA helburu antolatzen diren ekimenak bultzatuz, euskaltzaleen komunitatea trinkotzeko lankidetzak eskaini, antolakuntzan parte zuzena izanez edo bitartekaritza zerbitzuak eskainiz.
- ELKARTEGINTZA landu gizarte mugimenduekin (gazte-mugimenduak, etorkinen taldeak, feminismoa, aniztasun funtzionala...).

Hirugarrena: Diruz lagundutako jardueren finantziakzioa.

Diru ekarpen zuzena. Proiektuaren luzerako bideragarritasuna eta egonkortasun ekonomikoa bermatzeko, hitzarmen hau 2023. urtekoa izango da. Hori gauzatzeko 3.500 € emango dizkio 2023. urtean Udalak Galtzaundiri, udal-aurrekontuko partida honen kontura:

- 1 0000 481 335 00 21 2023 Dirulaguntza hitzartua: Galtzaundi Euskara Taldea.

Dirulaguntza hau bateragarri izango da helburu bereko beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administrazio edo entitate publiko edo pribatu nazionaletatik, Europar Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik datozenak, kalterik egin gabe honekin batera dauden beste dirulaguntzak erregulatzeko araudiak horri buruz agindu dezakeenari.

Laugarrena: Indarraldia.

Hitzarmen honek 2023ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte izango ditu ondorioak. Emandako dirulaguntza behar bezala erabili dela justifikatu behar zaio dagokion departamentuari.

Bosgarrena: Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.

Diruz lagungarri izango diren gastuak, diruz lagundutako jardueraren izaerari inolako zalantzarik gabe dagozkionak, behar-beharrezkoak direnak, eta hitzarmena onartutako urtearen barruan sortzen direnak.

Seigarrena: Dirulaguntzaren justifikazioa.

Dirulaguntzako gastuen justifikazio dokumentuak osatu eta Irurako Udalean aurkeztu beharko dira. Ondorengo dokumentazioa hau aurkeztu beharko da:

1. Urteko jardueren memoria: dirulaguntzen helburu diren jarduerak azaltzeko memoria eta lortutako emaitzen balorazioa. Memoria honen bitartez diruz lagundu diren ekintzak egin direla eta helburuak bete direla ziurtatuko da.
2. Diruz lagundutako jardueren gastuen eta diru-sarreraren balantzea. Balantze honekin gainfiantzaketarik ez dagoela ziurtatu beharko da.
3. Jardueren gastuen zerrenda eta dokumentuen kopia. Gutxienez, Udalak emandako dirulaguntza kopurua gainditzen duten fakturen kopiak aurkeztu beharko dira.
4. Zerga-betebeharrak zein Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean izatearen ziurtagiriak.

Zazpigarrena: Dirulaguntzen justifikazioa aurkezteko epea.

Dirulaguntzen justifikazioa aurkezteko epea **2024ko urtarrilaren 31n** amaituko da.

Zortzigarrena: Ordaintzeko prozedura.

Hitzarmen honen hirugarren klausulan zehatutako dirulaguntza-kopuruaren %70 jasoko du Galtzaundik hitzarmen hau sinatu eta hilabeteko epean. Dena dela, hitzarmena sinatu aurretik honako agiri hauek aurkeztuta izan beharko ditu:

1. Urteko jarduerarako instantzia (eskaera), entitate onuradunaren ordezkariak sinatuta.
2. Dirulaguntzaren eskatzailea den entitate onuradunaren Identifikazio Fiskaleko Kodearen agiria.
3. Elkarte edo erakundearen ordezkariaren egiaztatzen duen agiria (hitzarmena sinatu behar duen pertsona erakundeko ordezkari dela egiaztatzen duena).
4. Entitate onuradunaren erantzukizunpeko adierazpena, helburu bererako eta ekitaldi ekonomiko beraren barruan beste erakunde batzuei eskatutako edo eskatuko zaizkien dirulaguntzei buruzkoa, dirulaguntzaren zenbatekoa eta erakunde emailea adierazita, edo, halakorik ez badago, dirulaguntzarik jaso ez duela eta eskatu ez duela egiaztatzen duena.
5. Finantzatu nahi diren jardueren proiektu xehatua.
6. Programatutako jardueren aurrekontua, diru-sarreraren eta gastuen aurreikuspena adierazita.
7. Entitate onuradunaren kontu korronteko titulartasunaren agiria.

Edozein gisatara ere, Udalaren diru-ekarpena jaso ahal izateko, aurreko ekitaldiko harremanak likidatuta egon beharko du.

Dirulaguntzaren %30 jasoko du Galtzaundik hitzarmen honen zazpigarren klausulan ezarritako epean

eta seigarren klausulan ezarritako justifikazio dokumentuak aurkeztu eta organo eskudunak onartu ondoren.

Bederatzigarrena: Diruz lagundutako jardueraren publizitatea.

Entitate onuradunak diruz lagundutako jardueren publikotasuna zabaltzeko neurriak hartu beharko ditu, diruz lagundutako objektuentzat egoki direnak, dela beren forman, dela beren iraupenean, nola baita, esaterako, Irurako Udalaren irudi instituzionala edo beraren finantzaketa publikoari buruzko legendak sartzea edo ikus-entzunezkoetan, edo, bestela, hedabideetan aipamenak egitea, eta hori dena beste finantzaketa-iturri batzuei emandako garrantzi berean.

Hamargarrena: Euskararen erabilpena.

Euskadiko Toki Erakundeek buruzko 2/2016 Legeak eta Toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzko 179/2019 Dekretuak Udalari aitortzen dizkieten eskumenak eta betebeharrak kontuan hartuz, dirulaguntzak jasotzen dituzten entitateek honako hizkuntza irizpideak bete beharko dituzte:

- 18 urtez beherakoentzat antolatutako jarduerak (ikastaro, hitzaldi, entrenamendu, partidu, jai-aldi eta era guztietako ekitaldiak...) euskaraz izango dira, ahoz zein idatziz.
- Jarduera guztietan bermatuko da euskararen erabilera.
- Idatzizko komunikazioetan, publizitatea barne (kartelak, esku-orriak, sarrerak, gonbidapenak, gutunak, oharak, sare sozialak...) ezinbestekoa izango da euskara erabiltzea.
- Testu elebidunetan, hala badagokio, euskara lehenetsiko da, bai kokalekuaren aldetik, bai neurriaren aldetik. Hau da, euskarazko testua gaztelaniazkoaren gainean ala ezkerrean joango da, eta letra handiagoa eta/edo lodiagoa erabiliz idatziko da.
- Ahozko komunikazioetan, publizitatea barne (aurkezleak, hizlariak, irakasleak, monitoreak, entrenatzaileak, bozgorailuetako mezuak, irratia, telebista, musika...), ezinbestekoa izango da euskara erabiltzea.

Bi hizkuntzak erabili behar izanez gero, euskarari lehentasuna emango zaio. Ahozko erabilera horretan, mezua bozgorailuetatik errepikatu behar denean, euskaraz, gutxienez, gaztelaniaz baino bi aldiz gehiago errepikatuko da, eta aurkezpenetan, hitzaldietan, ekitaldietan..., euskarazko aurkezpena erdarazkoaren aurretik egingo da.

- Entitate onuradunak beren eguneroko jardunean euskararen normalizazioan sakontzen joateko, urteko helburuak finkatuko dituzte Euskara Zerbitzuaren laguntzarekin.
- Entitate onuradunak Udalarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak euskaraz izango dira, hori baita administrazio honen lan hizkuntza.

Hamaikagarrena: Genero berdintasuna.

Ezin izango dute parte hartu eta ez dira pertsona edo entitate onuradun izango honako hauek:

- Pertsona fisiko eta juridikoak baldin eta beren xede edo helburuak, aukeratzeko edo sartzeko sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolamendua edo estatutuak emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuneko printzipioaren kontrakoak badira.
- Sexu edota hizkuntza sexista erabiltzen duten pertsona fisiko edo juridikoek.
- Sexuaren ziozko zigor administratibo edo penala jaso duten pertsona fisiko edo juridikoak, ezta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea dela-eta hala zigortuta daudenak ere.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasun efektiboari buruzko martxoaren 22ko Lege Organikoan xedatutako obligazioak betetzen ez dituzten entitate edo enpresak.
- Aukeratzeko prozeduran edo funtzionamenduan sexuaren ziozko bereizketaren bat egiten duten elkarteak.

Beraz, erakunde onuradunak, diruz lagundutako jardueran, honako printzipioak bete beharko ditu:

- Hizkera inklusiboa eta irudi ez sexistaren erabilera egingo du dokumentazio, euskarri eta erro-tulazio guztian. Jarduera sustatzeko egiten dituen kartel, testu eta agiritako edukietan hizkuntzaren eta irudien erabilera ez sexista egin beharko du.
- Berdintasunean eragin positiboa izatea bermatuko du.

- Genero ikuspegia eta parekidetasun irizpideak txertatuko ditu proiektuetan.
- Proiektu eta memorietan sexuagatik banandutako datuak erabiliko ditu.
- Ez du sortuko sexuagatik bereizkeria zuzena edo zeharkakoa eragiten duen jarduerarik.

Hamabigarrena: Ingurumen betebeharrak.

Pertsona edo erakunde onuradunek, oro har, ingurumeneko irizpideak hartu beharko dituzte kontuan ondorengo alorretan:

- Aurrezte eta energia eraginkortasuna.
- Hondakin frakzio ezberdinen sailkatze egokia, horiek sortzeari aurrea hartzeaz gain.
- Tokiko aniztasunari kalterik ez sortzea (habitat naturalak, espezieak eta prozesu ekologikoak).
- Mugikortasun iraunkorra sustatzea.
- Indarrean dagoen araudiak ezarritako gehieneko mugaz gaindiko zaratarik ez sortzea eta heritarrekiko eta ingurumenarekiko kalitate akustikoa bermatzea.

Hamahirugarrena: Jarraipen Batzordea.

Hitzarmen honen jarraipena egingo dute Irurako Udaleko eta Galtzaundiko ordezkariak. Jarraipen-batzorde horren funtzioak hauek izango dira: hitzarmena ongi betetzen dela zaintzea, sor daitezkeen zalantzak argituz; dirulaguntza jaso duten jarduera guztien memoria eta ustiapen-kontua adostea; hitzarmena betetzen ote den eta zein neurritan betetzen den aztertzea; eta bi aldeen interesekoak izan daitezkeen lankidetzak bide berriak proposatzea.

Hamalagarrena: Iraungitzea.

Hitzarmen hau iraungiko da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 51. artikuluan zehaztutako kasuetan.

Hamabosgarrena: Onuradunen betebeharrak.

38/2003 Legearen 14. artikuluan aipatutako onuradunen betebeharrak bete beharko ditu erakunde onuradunak. Eta baita, bere jarduera gauzatzean, indarrean dagoen legedian ezarritakoa, bereziki zergei, lan-harremanei, Gizarte Segurantzari edo horren aplikaziotik eratorzen den guztiari dagokienez.

Hamaseigarrena: Izaera administratiboa.

Hitzarmen honek izaera administratiboa du. Beraz, bere klausulek eta, bere kasuan, aplikatzekoa den legediak arautzen dute.

Hitzarmen honetan xedatuta ez dagoen edozertarako, aipatutako azaroaren 17ko 38/2003 Legea bete behar da, eta Dirulaguntzei buruzko Irurako Udal Ordenantza.

Hamazazpigarrena: Izaera pertsonaleko datuak.

Izaera pertsonaleko datuak arautzen dituen legeriak agintzen duenari jarraituta, bi aldeek konpromisoa hartzen dute indarrean dagoen legerian xedatutakoa beteko dutela, aplika daitezkeen guztian.

Hamazortzigarrena: Baimentzea.

Entitate onuradunak espresuki ematen dio baimena Irurako Udalari behar diren datuak zuzenean eskura ditzan, edozein momentutan eta edozein Administrazio edo Erakunde Publikotatik, hitzarmen honen bitartez eskatutako dirulaguntza lortzeko ezinbesteko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

Eta ados daudela adierazteko, hitzarmena izenpetzen dute bi aldeek, nire aurrean, goiburuan aipatutako toki eta egunean, eta nik, idazkari naizen honek, fede ematen dut.

Gorka Murua Macuso

Endrike Amonarriz Gorria

Nire aurrean,
IRURAKO UDALEKO IDAZKARIA

Irantzu Arrizabalaga Gainza

BOZKETA.- AHO BATEZ ONARTU DA PROPOSAMENA.

9.- IRURAKO UDALA ETA HARITUZ TOLOSALDEKO BERTSOZALE ELKARGUNEAREN ARTEKO HITZARMENA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Alkateak, urtero ematen den proposamenaren azalpenak eman ditu.

Euskara batzordeak, 2023ko martxoaren 21ean eginiko bileran gai hau aztertu zuen:

4- Erakundeei dirulaguntza: hitzarmenak onartzeko proposatzea.

Udaleko euskara teknikariak, Harituz Tolosaldeko Bertsozale Elkarguneari 2023ko dirulaguntza emateko eta hitzarmena sinatzeko proposamena aurkeztu du.

Hitzarmen honen helburua da Irurako Udala eta Harituz elkarlanean aritzea, Iruran eta Tolosaldean bertsolaritza belaunaldiz belaunaldi transmititzeko.

Batzordeak aztertu du hitzarmena eta, quorum nahikoarekin, aho batez erabaki du Udalbatzak onar dezan proposatzea. Testu osoa doa erantsita.

Batzordeak honako hau erabaki du:

1. Harituz Tolosaldeko Bertsozale Elkarguneari 2023ari dagokion 2.000 euroko dirulaguntza ematea eta hitzarmena sinatzea proposatzea, Udalbatzak Osoko Bilkuran onar dezan.
2. Erabakia Harituz Tolosaldeko Bertsozale Elkarguneari jakinaraztea.

HITZARMENA:

2023KO HITZARMENA, IRURAKO UDALAREN ETA HARITUZ TOLOSALDEKO BERTSOZALE ELKARGUNEAREN ARTEKOA

Iruran, 2023ko martxoaren 28an sinadura elektronikoaren egunean

ELKARTURIK

Alde batetik, Gorka Murua Macuso, NAN: 44142319Y, Irurako Udaleko alkatea, Udaleko idazkari Irantzu Arrizabalaga Gainzak lagunduta, martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.2 i) artikulua araberan, fede publikoa emateko.

Eta bestetik, Beñat Iguaran Amondarain, NAN: 72465295T, Harituz Tolosaldeko Bertsosale Elkargunearen ordezkaria (IFZ: G75083238; helbidea: Tolosako Larramendi kalea 7 behe).

ESKU HARTZEN DUTE

Lehenengoak, Irurako Udalaren izenean eta ordezkartzan, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 artikuluan ezarritako eskumenekin bat etorrita, eta horretarako behar bezala ahalmenduta, **2023ko martxoaren 28ko ohiko** Osoko Bilkuran.

Bigarrenak, Harituz Tolosaldeko Bertsosale Elkargunearen (aurrerantzean Harituz) ordezkari gisa, **20...koren ...ko batzar orokorrak hartutako erabakiaren arabera.**

Bi aldeek hitzarmen hau egiteko behar adinako legezko gaitasuna aitortzen diote elkarri eta ondorio horretarako

AZALTZEN DUTE:

I.- Irurako Udalak eta Harituzek bat egiten dutela bertsolaritza sustatzeko. Tolosaldea Euskal Herriko eskualde bertsozaleenetako bat izan dela eta gaur egun ere badela. Harituzen helburua Tolosaldean belaunaldiz belaunaldiko transmisioa dela. Horrela, bertsolaritzaren sistema osoa hartzen duela aintzat (bertsolariak, irakasleak...) eta ez dagoela Tolosaldeko bailaran eta Irurako herrian beste erakunderik jarduera hori egiten duenik. Horretarako, urteko egitasmoa aurkeztu duela.

II.- Harituzek egunean dituela zerga-betebehar guztiak eta egunean dagoela Gizarte Segurantzarekin.

III.- Harituzen ordezkariak adierazten duela berak eta elkarteak, Irurako Udaleko dirulaguntza eskatzeari begira eta onuradun izaera lortzeko, betetzen dituela Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan ezarritako baldintzak.

IV.- Beste aldetik, 2/2016 Legearen 7. artikulua araberan (apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa) udalek eskumen propio gisa dutela beren lurralde-eremuan euskararen ezagutza sustatzea eta erabilera dinamizatzea, horretarako zerbitzuak eta jarduerak zuzenean antolatuz, edo beste pertsona edo erakunde batzuek euskara sustatu eta dinamizatze aldera burutzen dituzten jardueren finantzaketan lagunduz.

V.- Aipatu den 38/2003 Legearen 22.2 artikulua araberan, dirulaguntza hau zuzenean emango dela, Irurako Udalaren 2023ko Aurrekontuan izenez aurreikusita dagoenez.

VI.- Irurako Udalak 2023ko **martxoaren 28ko** ohiko Osoko Bilkuran onartu duela hitzarmen hau egitea.

Eta ados daudenez, bi aldeek hitzarmen hau formalizatu dute, ondoren zehazten diren klausulak ezarriz.

KLAUSULAK

Lehena: Xedea.

Hitzarmen honen helburua da Irurako Udala eta Harituz elkarlanean aritzea, Iruran eta Tolosaldean

bertsolaritza belaunaldiz belaunaldi transmititzeko.

Bigarrena: Entitate onuradunaren konpromisoa.

Hitzarmen honetan, Harituzek konpromisoa hartzen du 2023. urterako aurkeztu duen egitasmoa garatzeko.

Hirugarrena: Diruz lagundutako jardueren finantziazioa.

Hitzarmen honen bidez, Udalak, proiektua indartu eta bere bideragarritasuna bermatzeko, ekimen lerro hauek garatuko ditu:

Diru ekarpen zuzena. Proiektuaren luzerako bideragarritasuna eta egonkortasun ekonomikoa bermatzeko, hitzarmen hau 2023. urtekoa izango da. Hori gauzatzeko 2.000 € emango dizkio 2023. urtean Udalak Harituzi, udal-aurrekontuko partida honen kontura:

- 1.0000.481.335.00.01 2023 Dirulaguntza hitzartua: Harituz Tolosaldeko Bertsozale elkarte.

Dirulaguntza hau bateragarri izango da helburu bereko beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administrazio edo entitate publiko edo pribatu nazionaletatik, Europar Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik datozenak, kalterik egin gabe honekin batera dauden beste dirulaguntzak erregulatzeko araudiak horri buruz agindu dezakeenari.

Laugarrena: Indarraldia.

Hitzarmen honek 2023ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte izango ditu ondorioak. Emandako dirulaguntza behar bezala erabili dela justifikatu behar zaio dagokion departamentuari.

Bosgarrena: Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.

Diruz lagungarri izango diren gastuak, diruz lagundutako jardueraren izaerari inolako zalantzarik gabe dagozkionak, behar-beharrezkoak direnak, eta hitzarmena onartutako urtearen barruan sortzen direnak.

Seigarrena: Dirulaguntzaren justifikazioa.

Dirulaguntzako gastuen justifikazio dokumentuak osatu eta Irurako Udalean aurkeztu beharko dira. Ondorengo dokumentazioa hau aurkeztu beharko da:

1. Urteko jardueren memoria. Memoria honen bitartez diruz lagundu diren ekintzak egin direla eta helburuak bete direla ziurtatuko da.
2. Diruz lagundutako jardueren gastuen eta diru-sarreraren balantzea. Balantze honekin gainfinantzaketarik ez dagoela ziurtatu beharko da.
3. Jardueren gastuen zerrenda eta dokumentuen kopia. Gutxienez, Udalak emandako dirulaguntza kopurua gainditzen duten fakturen kopiak aurkeztu beharko dira.
4. Zerga-betebeharrak zein Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean izatearen ziurtagiriak.

Zazpigarrena: Dirulaguntzen justifikazioa aurkezteko epea.

Dirulaguntzen justifikazioa aurkezteko epea **2024ko urtarrilaren 31n** amaituko da.

Zortzigarrena: Ordaintzeko prozedura.

Hitzarmen honen hirugarren klausulan zehaztutako dirulaguntza-kopuruaren %70 jasoko du Harituzek hitzarmen hau sinatu eta hilabeteko epean. Dena dela, hitzarmena sinatu aurretik honako agiri hauek aurkeztuta izan beharko ditu:

8. Urteko jarduerarako instantzia (eskaera), entitate onuradunaren ordezkariak sinatuta.
9. Dirulaguntzaren eskatzailea den entitate onuradunaren Identifikazio Fiskaleko Kodearen agiria.
10. Entitate onuradunaren ordezkariak egiaztatzen duen agiria (hitzarmena sinatu behar duen pertsona entitateko ordezkari dela egiaztatzen duena).

11. Entitate onuradunaren erantzukizunpeko adierazpena, helburu bererako eta ekitaldi ekonomiko beraren barruan beste erakunde batzuei eskatutako edo eskatuko zaizkien dirulaguntzei buruzkoa, dirulaguntzaren zenbatekoa eta erakunde emailea adierazita, edo, halakorik ez badago, dirulaguntzarik jaso ez duela eta eskatu ez duela egiaztatzen duena.
12. Finantzatu nahi diren jardueren proiektu xehatua.
13. Programatutako jardueren aurrekontua, diru-sarreraren eta gastuen aurreikuspena adierazita.
14. Entitate onuradunaren kontu korronteko titulartasunaren agiria.

Edozein gisatarara ere, Udalaren diru-ekarpena jaso ahal izateko, aurreko ekitaldiko harremanak likidatuta egon beharko du.

Dirulaguntzaren %30 jasoko du Harituzek hitzarmen honen zazpigarren klausulan ezarritako epean eta seigarren klausulan ezarritako justifikazio dokumentuak aurkeztu eta organo eskudunak onartu ondoren.

Bederatzigarrena: Diruz lagundutako jardueraren publizitatea.

Entitate onuradunak diruz lagundutako jardueren publikotasuna zabaltzeko neurriak hartu beharko ditu, diruz lagundutako objektuentzat egoki direnak, dela beren forman, dela beren iraupenean, nola baita, esaterako, Irurako Udalaren irudi instituzionala edo beraren finantzaketa publikoari buruzko legendak sartzea edo ikus-entzunezkoetan, edo, bestela, hedabideetan aipamenak egitea, eta hori dena beste finantzaketa-iturri batzuei emandako garrantzi berean.

Hamargarrena: Euskararen erabilpena.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak eta Toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzko 179/2019 Dekretuak Udalari aitortzen dizkion eskumenak eta betebeharrak kontuan hartuz, dirulaguntzak jasotzen dituzten entitateek honako hizkuntza irizpideak bete beharko dituzte:

- 18 urtez beherakoentzat antolatutako jarduerak (ikastaro, hitzaldi, entrenamendu, partidu, jaialdi eta era guztietako ekitaldiak...) euskaraz izango dira, ahoz zein idatziz.
- Jarduera guztietan bermatuko da euskararen erabilera.
- Idatzizko komunikazioetan, publizitatea barne (kartelak, esku-orriak, sarrerak, gonbidapenak, gutunak, oharak, sare sozialak...) ezinbestekoa izango da euskara erabiltzea.
- Testu elebidunetan, hala badagokio, euskara lehenetsiko da, bai kokalekuaren aldetik, bai neurriaren aldetik. Hau da, euskarazko testua gaztelaniazkoaren gainean ala ezkerrean joango da, eta letra handiagoa eta/edo lodiagoa erabiliz idatziko da.
- Ahozko komunikazioetan, publizitatea barne (aurkezleak, hizlariak, irakasleak, monitorea, entrenatzaileak, bozgorailuetako mezuak, irratia, telebista, musika...), ezinbestekoa izango da euskara erabiltzea.

Bi hizkuntzak erabili behar izanez gero, euskarari lehentasuna emango zaio. Ahozko erabilera horretan, mezua bozgorailuetatik errepikatu behar denean, euskaraz, gutxienez, gaztelaniaz baino bi aldiz gehiago errepikatuko da, eta aurkezpenetan, hitzaldietan, ekitaldietan..., euskarazko aurkezpena erdarazkoaren aurretik egingo da.

- Entitate onuradunek beren eguneroko jardunean euskararen normalizazioan sakontzen joateko, urteko helburuak finkatuko dituzte Euskara Zerbitzuaren laguntzarekin.
- Entitate onuradunak Udalarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak euskaraz izango dira, hori baita administrazio honen lan hizkuntza.

Hamaikagarrena: Genero berdintasuna.

Ezin izango dute parte hartu eta ez dira pertsona edo entitate onuradun izango honako hauek:

- Pertsona fisiko eta juridikoak baldin eta beren xede edo helburuak, aukeratzeko edo sartzeko sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolamendua edo estatutuak emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuneko printzipioaren kontrakoak badira.

- Sexu edota hizkuntza sexista erabiltzen duten pertsona fisiko edo juridikoek.
- Sexuaren ziozko zigor administratibo edo penala jaso duten pertsona fisiko edo juridikoak, ezta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legea dela-eta hala zigortuta daudenak ere.
- Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legean edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasun efektiboari buruzko martxoaren 22ko Lege Organikoan xedatutako obligazioak betetzen ez dituzten entitate edo enpresak.
- Aukeratzeko prozeduran edo funtzionamenduan sexuaren ziozko bereizkeriaren bat egiten duten elkarteak.

Beraz, erakunde onuradunak, diruz lagundutako jardueran, honako printzipioak bete beharko ditu:

- Hizkera inklusiboa eta irudi ez sexistaren erabilera egingo du dokumentazio, euskarri eta errotulazio guztian. Jarduera sustatzeko egiten dituen kartel, testu eta agiriari buruzko edukietan hizkuntzaren eta irudien erabilera ez sexista egin beharko du.
- Berdintasunean eragin positiboa izatea bermatuko du.
- Genero ikuspegia eta parekidetasun irizpideak txertatuko ditu proiektuetan.
- Proiektu eta memorietan sexuagatik banandutako datuak erabiliko ditu.
- Ez du sortuko sexuagatik bereizkeria zuzena edo zeharkakoa eragiten duen jarduerarik.

Hamabigarrena: Ingurumen betebeharrak.

Pertsona edo erakunde onuradunek, oro har, ingurumeneko irizpideak hartu beharko dituzte kontuan ondorengo alorretan:

- Aurrezte eta energia eraginkortasuna.
- Hondakin frakzio ezberdinen sailkatze egokia, horiek sortzeari aurrea hartzeaz gain.
- Tokiko aniztasunari kalterik ez sortzea (habitat naturalak, espezieak eta prozesu ekologikoak).
- Mugikortasun iraunkorra sustatzea.
- Indarrean dagoen araudiak ezarritako gehieneko mugaz gaindikoa zaratarik ez sortzea eta herri-tarrekiko eta ingurumenarekiko kalitate akustikoa bermatzea.

Hamahirugarrena: Jarraipen batzordea.

Hitzarmen honen jarraipena egingo dute Irurako Udaleko eta Harituzeko ordezkariak. Jarraipen-batzorde horren funtzioak hauek izango dira: hitzarmena ongi betetzen dela zaintzea, sor daitezkeen zalantzak argitzea; dirulaguntza jaso duten jarduera guztien memoria eta ustiapen-kontua adostea; hitzarmena betetzen ote den eta zein neurritan betetzen den aztertzea; eta bi aldeen interesekoak izan daitezkeen lankidetzak bide berriak proposatzea.

Hamalauugarrena: Iraungitzea.

Hitzarmen hau iraungiko da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 51. artikuluan zehaztutako kasuetan.

Hamabosgarrena: Onuradunen betebeharrak.

38/2003 Legearen 14. artikuluan aipatutako onuradunen betebeharrak bete beharko ditu erakunde onuradunak. Eta baita, bere jarduera gauzatzean, indarrean dagoen legedian ezarritakoa, bereziki zergei, lan-harremanei, Gizarte Segurantzari edo horren aplikaziotik eratorzen den guztiari dagokienez.

Hamaseigarrena: Izaera administratiboa.

Hitzarmen honek izaera administratiboa du. Beraz, bere klausulek eta, bere kasuan, aplikatzekoa den legediak arautzen dute.

Hitzarmen honetan xedatuta ez dagoen edozertarako, aipatutako azaroaren 17ko 38/2003 Legea bete behar da, eta Dirulaguntzei buruzko Irurako Udal Ordenantza.

Hamazazpigarrena: Izaera pertsonaleko datuak.

Izaera pertsonaleko datuak arautzen dituen legeriak agintzen duenari jarraituta, bi aldeek konpromisoa hartzen dute indarrean dagoen legerian xedatutakoa beteko dutela, aplika daitekeen guztian.

Hamazortzigarrena: Baimentzea.

Entitate onuradunak espresuki ematen dio baimena Irurako Udalari behar diren datuak zuzenean eskura ditzan, edozein momentutan eta edozein Administrazio edo Erakunde Publikotatik, hitzarmen honen bitartez eskatutako dirulaguntza lortzeko ezinbesteko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

Eta ados daudela adierazteko, hitzarmena izenpetzen dute bi aldeek, nire aurrean, goiburuan aipatutako toki eta egunean, eta nik, idazkari naizen honek, fede ematen dut.

IRURAKO UDALEKO ALKATEA

HARITUZ TOLOSALDEKO BERTSOZALE
ELKARGUNEKO ORDEZKARIA

Gorka Murua Macuso

Beñat Iguaran Amondarain

Nire aurrean,
IRURAKO UDALEKO IDAZKARIA

Irantzu Arrizabalaga Gainza

BOZKETA.- AHO BATEZ ONARTU DA PROPOSAMENA.

10.- IRURAKO UDALA ETA TOLOSAGO KOMUNIKABIDEAK SL-REN (28 KANALA) ARTEKO HITZARMENA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Alkateak, urtero ematen den proposamenaren azalpenak eman ditu.

Euskara batzordeak, 2023ko martxoaren 21ean eginiko bileran gai hau aztertu zuen:

4- Erakundeei dirulaguntza: hitzarmenak onartzeko proposatzea.

Udaleko euskara teknikariak, Tolosako Komunikabideak (28 Kanala) hedabideari 2023ko dirulaguntza emateko eta hitzarmena sinatzeko proposamena aurkeztu du.

Hitzarmen honen helburua da 28 Kanalari laguntza ematea 2023ko proiektu komunikatiboa bideratzeko eta, Udalarekin elkarlanean, hedabideen alorrean euskararen erabileraren normalizazio-lanak bideratzeko.

Batzordeak aztertu du hitzarmena eta, quorum nahikoarekin, aho batez erabaki du Udalbatzak onar dezan proposatzea. Testu osoa doa erantsita.

Batzordeak honako hau erabaki du:

1. Tolosako Komunikabideak (28 Kanala) hedabideari 2023 urteari dagokion 3.000 euroko dirulaguntza ematea eta hitzarmena sinatzea proposatzea, Udalbatzak Osoko Bilkuran onar dezan.
2. Erabakia Tolosako Komunikabideak (28 Kanala) hedabideari jakinaraztea.

HITZARMENA:

2023KO HITZARMENA, IRURAKO UDALAREN ETA TOLOSAKO KOMUNIKABIDEAK SL (28 KANALA) ARTEKOA

Irura, 2023ko martxoaren 28an. sinadura elektronikoen egunean

ELKARTURIK

Alde batetik, Gorka Murua Macuso, NAN:44142319Y, Irurako Udaleko alkatea, Udaleko idazkari Irantzu Arrizabalaga Gainzak lagunduta, martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.2 i) artikulua araberako, fede publiko emateko.

Eta bestetik, Yon Aldanondo Albisu, NAN: 34108860K, Tolosako Komunikabideak SL (28 Kanala) sozietateko ordezkaria (IFZ: B20915468; helbidea: Tolosako San Esteban auzoa 20).

ESKU HARTZEN DUTE

Lehenengoak, Irurako Udalaren izenean eta ordezkartzan, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 artikuluan ezarritako eskumenekin bat etorrira, eta horretarako behar bezala ahalmenduta, 2023ko martxoaren 28ko ohiko Osoko Bilkuran.

Bigarrenak, Tolosako Komunikabideak SL (aurrerantzean 28 Kanala) sozietateko ordezkari gisa, erakundeko eskrituren araberako (2012ko abenduaren 14ko notario-agiriak fede ematen du).

Bi alderdiek hitzarmen hau egiteko behar adinako legezko gaitasun aitortzen diote elkarri, eta ondorio horretarako

AZALTZEN DUTE

I.- Herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko ahaleginean, Irurako Udalak eta 28 Kanalak bat egiten dutela euskararen erabilera eta normalizazioan eragiteko premia eta helburuekin, eta, asmo honen zerbitzura, herritarrek euskaraz informatzeko eskualde mailako komunikabide sarea sustatzea dela hitzarmen honen xede eta funtsa.

II.- 28 Kanalak egunean dituela zerga-betebehar guztiak eta egunean dagoela Gizarte Segurantzarekin.

III.- 28 Kanalak ez daukala debekurik dirulaguntzak jasotzeko. Debeku horiek Lege honetan daude jasota: 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa; 13. artikulua 2. eta 3. zenbakiak.

IV.- 28 Kanala Tolosaldeko euskarazko komunikabidea dela, telebista, irratia eta webgunea osatzen duten proiektu komunikatibo multimediarren jabe eta ekoizpen arduraduna.

V.- 28 Kanalak kudeatzen duen komunikabide sarearen eremua Tolosaldeko eskualdea osatzen

duten herrietara hedatzen dela Telebista eta Irratiaren seinalearen bidez, bere onuradun direlarik bertako herri eta herritar guztiak, tartean, Irura. Gainera kable bidez Euskadi osora zabaltzen dela eta webgunearen bitartez mundu osora. Gainera, 28 Kanala, Tokikom, Euskal Herriko Toki Hedabideen Elkarteko partaide ere bada.

VI.- 28 Kanalak eratutako euskarazko proiektu komunikatibo honen helburu nagusia, eskualdean sortzen den informazioa herritarrei bitarteko anitzetan euskaraz komunikatzea dela, eta honela, euskararen erabilpena sustatzeko eta normalizazioa eragiteko Udalak duen plangintzari ekarpen esanguratsua egiten zaiola.

VII.- Beharrezkoa dela 28 Kanalak aipatu helburuekin eskualdean egiten duen lanari behar bezalako aitortza egitea ez ezik, bere jardunaren kalitatea ziurtatu eta sendotzeko Udala eta 28 Kanalaren arteko lankidetzak jardunean sakontzea, aintzat harturik Eusko Lege Biltzarraren “2/2016 legea, apirilaren 7koa. Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak” Udalari ematen dizkion eskumenak eta 28 Kanalak aurkeztutako proiektu komunikatiboa eta bideragarritasun plangintza.

VIII.- Hitzarmen honek bat egiten duela Eusko Jaurlearitzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailburuak “Euskarazko hedabideak sendotu, eraginkortu, garatu eta normalizatzeko” diru laguntzak emateko modua arautuz 2016ko uztailaren 20an emandako aginduaren helburuekin (EHAA, 2016ko uztailaren 22a, 140 zenbakia) eta, baita, Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiak “Euskararen erabilera sozialaren inguruan diru laguntzak emateko oinarri arautzailetan” (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 2017ko martxoaren 7a, 46 zenbakia) finkatutakoarekin ere, eta osagarri dela.

IX.- Aipatu den 38/2003 Legearen 22.2 artikuluan arabera, dirulaguntza hau zuzenean emango dela, Irurako Udalaren 2023ko Aurrekontuan izenez aurreikusita dagoenez.

X.- Hitzarmen honen xedea dela 28 Kanalari laguntza ematea 2023ko proiektu komunikatiboa bideratzeko eta, Udalarekin elkarlanean, hedabideen alorrean euskararen erabilaren normalizazio-lanak bideratzeko.

XI.- Araubide juridikoa:

- Espainiako Konstituzioak 43.3 artikuluan adierazten du botere publikoek herritarren bizi baldintzak hobetzeko ekintzak sustatuko dituztela.
- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, 22.2.a) artikuluan aurreikusten du toki erakundeen aurrekontuetan modu nominatiboan aurreikusitako dirulaguntzak zuzenean emateko aukera.
- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak, 28. artikuluan xedatzen du hitzarmena izango dela toki erakundeen aurrekontuetan modu nominatiboan aurreikusitako dirulaguntzak bideratzeko ohiko tresna.
- Irurako Udalak 2022/2024 urteetarako dirulaguntzen plan estrategikoa onartu du (2022-04-19an GAO-n argitaratua), onura publikoko edo gizarte-intereseko jarduerak sustatzeko edo helburu publiko bat sustatzeko helburua duten politika publikoak planifikatzeko tresna gisa. Bertan dator zehaztuta hitzarmen honi dagokion Euskara Saileko dirulaguntza lerroa.

- Irurako Udaleko Udaltzako 2023ko urtarrilaren 31ko ohiko Osoko Bilkuran eman zion hasierako onarpena 2023ko udal-aurrekontuari, eta behin betikoz onartu zen 2023ko otsailaren 27an (GAO, 2023-03-09), bertan jasota dagoelarik hitzarmen honi dagokion dirulaguntza.

Eta ados daudenez, bi aldeek hitzarmen hau formalizatu dute, ondoren zehazten diren klausulak ezarriz.

KLAUSULAK

Lehena: Xedea.

Zehaztu da dirulaguntzaren helburua dela 28 Kanalari laguntza ematea 2023ko proiektu komunikatiboa bideratzeko eta, Udalarekin elkarlanean, hedabideen alorrean euskararen erabileraren normalizazio-lanak bideratzeko.

Bigarrena: Entitate onuradunaren konpromisoa.

28 Kanalak jarraian aipatzen diren ekoizpen ildoak garatu eta hobetzen ahalegintzeko konpromisoa hartzen du:

- a) Telebista, irrati eta webgunea euskarriekin jarraitzea. Telebista, irrati, web eta sare sozialek osatzen dute 28 Kanalaren eskaintza.
- b) Eduki guztiak euskara hutsean eskaintzea.
- c) Telebistaren kasuan LTDan eta Euskalteleko zuntz bidez, eta 28irrati FM frekuentziako 106.7an.
- d) Bailarako edukiak programazioaren ardatz nagusia izatea, baina, horrez gain, elkarlanean aritzea gainontzeko euskarazko teledibutuekin. Tokikom, Euskal Herriko Toki Hedabideen Elkartearen partaidea izaten jarraitzea.

Aipatutako ildoak bideratzeko, herritarrei eskaintzen zaien zerbitzua ere baden heinean, konpromiso hauek hartzen ditu:

- a) Herritarren intereseko produktuak (edukiak, formatu, maiztasun ...) lantzeko ahalegina egingo da. Hedabideen bilakaera azkarra kontuan, gertatzen diren aurrerabideak eten gabe aztertu dira beharrezkoak izan daitezkeen hobekuntzak egiten saiatzeko.
- b) 28 Kanalak beren-beregi zainduko ditu hedatutako informazioen pluraltasuna eta objektibotasuna, iritzi zein pentsamolde guztiei lekua eginez, herritar guztien erreferentziazko komunikazio gunea izateko helburuarekin.
- c) 28 Kanala gizarteratu, zabaldu eta irismena areagotzeko ahalegin etengabea egingo da; urteko egitasmoan finkatutako dira helburuak.
- d) Herri guztietara iristeko moduak hobetzeko neurri bideragarriak hartuko dira.

Hirugarrena: Diruz lagundutako jardueren finantziaketa eta Udalaren konpromisoa.

Diru ekarpen zuzena. Proiektuaren luzerako bideragarritasuna eta egonkortasun ekonomikoa

bermatzeko, hitzarmen hau 2023. urtekoa izango da. Hori gauzatzeko 3.000 € emango dizkio 2023. urtean Udalak 28 Kanalari, udal-aurrekontuko partida honen kontura:

- 1 0000 481 335 00 31 2023 *Dirulaguntza hitzartua: Tolosako Komunikabideak SL (28 Kanala).*

Gainera, Udalak, proiektua indartu eta bere bideragarritasuna bermatzeko ekimen lerro hauek garatuko ditu:

- a) Publizitatea. Erreferentzialtasuna irabazteko, Udalak publizitatea egiten badu 28 Kanalean, tarifatik deskontua izango du. Urteko fakturazioaren arabera negoziatuko dute bi aldeek; hala balitz, urtean-urtean adostutako plangintza komertzialean islatuko litzateke.
- b) Beste euskarriak. Ohiko ekoizpenetik at, Udalaren eta 28 Kanalaren artean osatuko den lantaldeak adostutako proiektua sustatzeko diru-ekarpen bereziak egin ahal izango ditu Udalak.
- c) Sozializazio eta zabalkundea. Herritarren eta bertako indar eragileen borondatea eta lankidetzak erakartzeko Udal zerbitzuen kooperazioa izango du 28 Kanalak.
- d) Informazioaren kudeaketa: Udalak berak edo herrian sortzen den informazio jariora sistematikoki trukatzeko neurriak hartuko dituzte Udalak eta 28 Kanalak.

Dirulaguntza hau bateragarri izango da helburu bereko beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administrazio edo entitate publiko edo pribatu nazionalatik, Europar Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik datozenak, kalterik egin gabe honekin batera dauden beste dirulaguntzak erregulatzeko araudiak horri buruz agindu dezakeenari.

Laugarrena: Indarraldia.

Hitzarmen honek 2023ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte izango ditu ondorioak. Emandako dirulaguntza behar bezala erabili dela justifikatu behar zaio dagokion departamentuari.

Bosgarrena: Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.

Diruz lagungarri izango diren gastuak, diruz lagundutako jardueraren izaerari inolako zalantzarik gabe dagozkionak, behar-beharrezkoak direnak, eta hitzarmena onartutako urtearen barruan sortzen direnak.

Seigarrena: Dirulaguntzaren justifikazioa.

Dirulaguntzako gastuen justifikazio dokumentuak osatu eta Irurako Udalean aurkeztu beharko dira. Ondorengo dokumentazioa hau aurkeztu beharko da:

1. Urteko jardueren memoria: dirulaguntzen helburu diren jarduerak azaltzeko memoria eta lortutako emaitzen balorazioa. Memoria honen bitartez diruz lagundu diren ekintzak egin direla eta helburuak bete direla ziurtatuko da.

2. Diruz lagundutako jardueren gastuen eta diru-sarrereren balantzea. Balantze honekin gainfinantzaketarik ez dagoela ziurtatu beharko da.
3. Jardueren gastuen zerrenda eta dokumentuen kopia. Gutxienez, Udalak emandako diru laguntza kopurua gainditzen duten fakturen kopiak aurkeztu beharko dira.
4. Zerga-betebeharrak zein Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean izatearen ziurtagiriak.

Zazpigarrena: Dirulaguntzen justifikazioa aurkezteko epea.

Dirulaguntzen justifikazioa aurkezteko epea 2024ko urtarrilaren 31n amaituko da.

Zortzigarrena: Ordaintzeko prozedura.

Hitzarmen honen hirugarren klausulan zehatutako dirulaguntza-kopuruaren %70 jasoko du 28 Kanalak, hitzarmen hau sinatu eta hilabeteko epean. Dena dela, hitzarmena sinatu aurretik honako agiri hauek aurkeztuta izan beharko ditu:

1. Urteko jarduerarako instantzia (eskaera), entitate onuradunaren ordezkariak sinatuta.
2. Dirulaguntzaren eskatzailea den entitate onuradunaren Identifikazio Fiskaleko Kodearen agiria.
3. Elkarre edo erakundearen ordezkariak egiaztatzen duen agiria (hitzarmena sinatu behar duen pertsona erakundeko ordezkari dela egiaztatzen duena).
4. Entitate onuradunaren erantzukizunpeko adierazpena, helburu bererako eta ekitaldi ekonomiko beraren barruan beste erakunde batzuei eskatutako edo eskatuko zaizkien dirulaguntzei buruzkoa, dirulaguntzaren zenbatekoa eta erakunde emailea adierazita, edo, halakorik ez badago, dirulaguntzarik jaso ez duela eta eskatu ez duela egiaztatzen duena.
5. Finantzatu nahi diren jardueren proiektu xehatua.
6. Programatutako jardueren aurrekontua, diru-sarrereren eta gastuen aurreikuspena adierazita.
7. Entitate onuradunaren kontu korronteko titulartasunaren agiria.

Edozein gisataraz ere, Udalaren diru-ekarpena jaso ahal izateko, aurreko ekitaldiko harremanak likidatuta egon beharko du.

Dirulaguntzaren %30 jasoko du 28 Kanalak hitzarmen honen zazpigarren klausulan ezarritako epean eta seigarren klausulan ezarritako justifikazio dokumentuak aurkeztu eta organo eskudunak onartu ondoren.

Bederatzigarrena: Diruz lagundutako jardueraren publizitatea.

Entitate onuradunak diruz lagundutako jardueren publikotasuna zabaltzeko neurriak hartu beharko ditu, diruz lagundutako objektuarentzat egoki direnak, dela beren forman, dela beren iraupenean, nola baita, esaterako, Irurako Udalaren irudi instituzionala edo beraren finantzaketa publikoari buruzko legendak sartzeari edo ikus-entzunezkoetan, edo, bestela, hedabideetan aipamenak egitea, eta hori dena beste finantzaketa-iturri batzuei emandako garrantzi berean.

Hamargarrena: Euskararen erabilpena.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak eta Toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzko 179/2019 Dekretuak Udalari aitortzen dizkioten eskumenak eta betebeharrak kontuan hartuz, dirulaguntzak jasotzen dituzten entitateek honako hizkuntza irizpideak bete beharko dituzte:

- 18 urtez beherakoentzat antolatutako jarduerak (ikastaro, hitzaldi, entrenamendu, partidu, jaialdi eta era guztietako ekitaldiak...) euskaraz izango dira, ahoz zein idatziz.
- Jarduera guztietan bermatuko da euskararen erabilera.
- Idatzizko komunikazioetan, publizitatea barne (kartelak, esku-orriak, sarrerak, gonbidapenak, gutunak, oharra, sare sozialak...) ezinbestekoa izango da euskara erabiltzea.
- Testu elebidunetan, hala badagokio, euskara lehenetsiko da, bai kokalekuaren aldetik, bai neurriaren aldetik. Hau da, euskarazko testua gaztelaniazkoaren gainean ala ezkerrean joango da, eta letra handiagoa eta/edo lodiagoa erabiliz idatziko da.
- Ahozko komunikazioetan, publizitatea barne (aurkezleak, hizlariak, irakasleak, monitoreak, entrenatzaileak, bozgorailuetako mezuak, irratia, telebista, musika...), ezinbestekoa izango da euskara erabiltzea.
- Bi hizkuntzak erabili behar izanez gero, euskarari lehentasuna emango zaio. Ahozko erabilera horretan, mezua bozgorailuetatik errepikatu behar denean, euskaraz, gutxienez, gaztelaniaz baino bi aldiz gehiago errepikatuko da, eta aurkezpenetan, hitzaldietan, ekitaldietan..., euskarazko aurkezpena erdarazkoaren aurretik egingo da.
- Entitate onuradunek beren eguneroko jardunean euskararen normalizazioan sakontzen joateko, urteko helburuak finkatuko dituzte Euskara Zerbitzuaren laguntzarekin.
- Entitate onuradunak Udalarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak euskaraz izango dira, hori baita administrazio honen lan hizkuntza.

Hamaikagarrena: Genero berdintasuna.

Ezin izango dute parte hartu eta ez dira pertsona edo entitate onuradun izango honako hauek:

- Pertsona fisiko eta juridikoak baldin eta beren xede edo helburuak, aukeratzeko edo sartzeko sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolamendua edo estatutuak emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuneko printzipioaren kontrakoak badira.
- Sexu edota hizkuntza sexista erabiltzen duten pertsona fisiko edo juridikoek.
- Sexuaren ziozko zigor administratibo edo penala jaso duten pertsona fisiko edo juridikoak, ezta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea dela-eta hala zigortuta daudenak ere.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasun efektiboari buruzko martxoaren 22ko Lege Organikoan xedatutako obligazioak betetzen ez dituzten entitate edo enpresak.

- Aukeratzeko prozeduran edo funtzionamenduan sexuaren ziozko bereizketaren bat egiten duten elkarteak.

Beraz, erakunde onuradunak, diruz lagundutako jardueran, honako printzipioak bete beharko ditu:

- Hizkera inklusiboa eta irudi ez sexistaren erabilera egingo du dokumentazio, euskarri eta errotulazio guztian. Jarduera sustatzeko egiten dituen kartel, testu eta agirietako edukietan hizkuntzaren eta irudien erabilera ez sexista egin beharko du.
- Berdintasunean eragin positiboa izatea bermatuko du.
- Genero ikuspegia eta parekidetasun irizpideak txertatuko ditu proiektuetan.
- Proiektu eta memorietan sexuagatik banandutako datuak erabiliko ditu.
- Ez du sortuko sexuagatik bereizkeria zuzena edo zeharkakoa eragiten duen jarduerarik.

Hamabigarrena: Ingurumen betebeharrak.

Pertsona edo erakunde onuradunek, oro har, ingurumeneko irizpideak hartu beharko dituzte kontuan ondorengo alorretan:

- Aurrezte eta energia eraginkortasuna.
- Hondakin frakzio ezberdinen sailkatze egokia, horiek sortzeari aurrea hartzeaz gain.
- Tokiko bioaniztasunari kalterik ez sortzea (habitat naturalak, espezieak eta prozesu ekologikoak).
- Mugikortasun iraunkorra sustatzea.
- Indarrean dagoen araudiak ezarritako gehieneko mugaz gaindiko zaratarik ez sortzea eta herriarrekiko eta ingurumenarekiko kalitate akustikoa bermatzea.

Hamahirugarrena: Jarraipen Batzordea.

Hitzarmen honen jarraipena egingo dute Irurako Udaleko eta 28 Kanaleko ordezkariak. Jarraipen-batzorde horren funtzioak hauek izango dira: hitzarmena ongi betetzen dela zaintzea, sor daitezkeen zalantzak argituz; dirulaguntza jaso duten jarduera guztien memoria eta ustiapen-kontua adostea; hitzarmena betetzen ote den eta zein neurritan betetzen den aztertzea; eta bi aldeen interesekoak izan daitezkeen lankidetzak bide berriak proposatzea.

Hamalagarrena: Iraungitzea.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 51. artikuluan zehaztutakoaren arabera, entitate onuradunak bete beharreko edozein eginkizun ez betetzeak ekarriko du dirulaguntza berrikustea edo indarrik gabe uztea, eta hala balitz, emaniko diru-kopurua gutxitzea edo itzultzea. Hori guztia aurreikusita dago Ordenantzan eta Legean. Dena den, erantzukizunak eskatu ahal izango zaizkio. Izaniko ez betetzeak mailakatzeko proportzionaltasun irizpidea erabiliko da.

Bi aldeek adostu ahal izango dute hitzarmena bertan behera uztea edo etetea, ezingo balitz edo interesik ez balego lana garatzen jarraitzeko, izan proiektuaren bideragarritasunari edo izaerari atxikitako arrazoiengatik edo behar bezala justifikatutako bestelako arrazoiengatik.

Hamabosgarrena: Onuradunen betebeharrak.

Erakunde onuradunaren betebeharrak Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluan ezarritakoak izango dira, eta, zehazki, betebeharrak espezifiko hauek betetzea:

- 28 Kanalak 2023ko ekitaldian burutzea dirulaguntza jasoko duen jarduera.
- 38/2003 Legeak, azaroaren 17koak, dirulaguntzen lege orokorrak, 13. artikuluan xedatutako onuradun izateko debekuetan adierazitako egoeretan ez egotea, une honetan eta hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean.
- Udal organo eskudunak edo udal kontu-hartzaitzak burututako egiaztapen eta kontrol jarduketak onartzea, organo hauek, emandako zenbatekoen erabileraren fiskalizazio eta kontrolerako eginkizunak baliatuta, eska diezaioketen informazio guztia emateko betebeharrak izanda, 38/2003 Legean xedatutakoaren arabera.
- Irurako Udala laguntzaile gisa agertzea diruz laguntzen den proiektuan.
- Jarduera guztietan Legeak eskatzen dituen segurtasun neurriak hartzea.

Hamaseigarrena: Hitzarmenaren izaera.

Hitzarmen honek sinatzaileen artean ondorio juridikoak ditu, baina ez du kontratu izaerarik, eta ez ditu bere baitan hartzen kontratu batek dituen prestazioak. Hitzarmenaren xedea da entitatea eta Udala helburu berarekin elkarlanean aritzea.

Sektore Publikoko Araubidea onartzen duen, urriaren 2ko, 40/2015 Legearen 47. artikuluan ezartzen diren hitzarmen-moten barruan kokatzen da hitzarmen hau, hain zuzen ere, administrazio publikoaren eta entitate pribatu baten artekoa, eta hitzarmenaren araubidea legearen VI. kapituluaren xedatutakoari lotuko zaio. Modu horretan, hitzarmenaren helburua izango da entitate sinatzaileak Udalari emango dion laguntzari esker, arloaren kudeaketa hobetzea; udalak egingo duen ekarpenak ez du inoiz gaindituko hitzarmenean jasotako ekimenen gastua; eta hitzartzen den dirulaguntzak 38/2003 Dirulaguntzen inguruko Lege Orokorra bete beharko du.

Hitzarmen hau interpretatu eta betetzeko orduan sor daitezkeen gai gatazkatsuak aztertzea eta ebaztea administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren ardura izango da.

Hamazazpigarrena: Izaera pertsonaleko datuak.

Hitzarmenaren xedean adierazitakoaren arabera, lanak/zereginak/zerbitzuak egiteko, ez da beharrezkoa Irurako Udalarenak diren datu pertsonalak eskuratzea. Horrela, debekatuta dago Irurako Udalarenak diren datu pertsonalak tratatzea, eskuratzea eta ikustea.

Datu pertsonalak nahi gabe eta baimenik gabe ikusiz gero, erakundeak konpromisoa hartzen du ezagutu dezakeen informazioa sekretupean eta isilpean gordetzeko eta arduraduna den erakundeko datuen babesaren ordezkariari gertatutakoa berehala jakinarazteko.

Horiek horrela, erakundeko langileak behartuta daude datuak hirugarren pertsonari ez ezagutaraztera, transferitzera, ematera edo jakinaraztera, eta betebeharrak hori Irurako Udalarekin

duen harreman juridikoa amaitu ondoren ere mantenduko da.

Oro har, Irurako Udalak ezarritako eta emandako informazioaren segurtasun neurriak eta jarraibideak bete beharko dira.

Hamazortzigarrena: Baimentzea.

Entitate onuradunak espresuki ematen dio baimena Irurako Udalari behar diren datuak zuzenean eskura ditzan, edozein momentutan eta edozein Administrazio edo Erakunde Publikotatik, hitzarmen honen bitartez eskatutako dirulaguntza lortzeko ezinbesteko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

Eta ados daudela adierazteko, hitzarmena izenpetzen dute bi aldeek, nire aurrean, goiburuan aipatutako toki eta egunean, eta nik, idazkari naizen honek, fede ematen dut.

IRURAKO UDALEKO ALKATEA

TOLOSAKO KOMUNIKABIDEAK SL
SOZIJETATEKO ORDEZKARIA

Gorka Murua Macuso

Yon Aldanondo Albisu

Nire aurrean,
IRURAKO UDALEKO IDAZKARIA

Irantzu Arrizabalaga Gainza

BOZKETA.- AHO BATEZ ONARTU DA PROPOSAMENA.

11.- IRURAKO UDALA ETA TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEAREN (ATARIA) ARTEKO HITZARMENA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Alkateak, urtero ematen den proposamenaren azalpenak eman ditu.

Euskara batzordeak, 2023ko martxoaren 21ean eginiko bileran gai hau aztertu zuen:

4- Erakundeei dirulaguntza: hitzarmenak onartzeko proposatzea.

Udaleko euskara teknikariak, Tolosaldeko Komunikazio Taldeari (Ataria) 2023ko dirulaguntza emateko eta hitzarmena sinatzeko proposamena aurkeztu du.

Hitzarmen honen helburua da Tolosaldeko Komunikazio Taldeari laguntza ematea 2023ko proiektu komunikatiboa bideratzeko eta, Udalarekin elkarlanean, hedabideen alorrean euskararen erabileraren normalizazio-lanak bideratzeko.

Batzordeak aztertu du hitzarmena eta, quorum nahikoarekin, aho batez erabaki du Udalbatzak onar dezan proposatzea. Testu osoa doa erantsita.

Batzordeak honako hau erabaki du:

1. Tolosaldeko Komunikazio Taldeari (Ataria) 2023 urteari dagokion 9.500 euroko dirulaguntza ematea eta hitzarmena sinatzea proposatzea, Udalbatzak Osoko Bilkuran onar dezan.
2. Erabakia Tolosaldeko Komunikazio Taldeari jakinaraztea.

HITZARMENA:

**2023KO HITZARMENA, IRURAKO UDALAREN ETA TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO
TALDEAREN (ATARIA) ARTEKOA**

Irura, 2023ko martxoaren 28an. **sinadura elektronikoaren egunear**

ELKARTURIK

Alde batetik, Gorka Murua Macuso, NAN:44142319Y, Irurako Udaleko alkatea, Udaleko idazkari Irantzu Arrizabalaga Gainzak lagunduta, martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.2 i) artikulua araberan, fede publikoa emateko.

Eta bestetik, Iban Urdapilleta Alkizalete, NAN: 72481815Y, Tolosaldeko Komunikazio Taldearen (Ataria) kudeatzaile eta ordezkaria (IFK: B75085050; helbidea: San Esteban auzoa 20 – 20400 Tolosa).

ESKU HARTZEN DUTE

Lehenengoak, Irurako Udalaren izenean eta ordezkartzan, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 artikuluan ezarritako eskumenekin bat etorrira, eta horretarako behar bezala ahalmenduta, 2023ko martxoaren 28ko ohiko Osoko Bilkuran.

Bigarrenak, Tolosaldeko Komunikazio Taldearen (Ataria) ordezkari gisa, erakundeko eskrituren arabera (2018ko maiatzaren 23ko notario-agiriak fede ematen du).

Bi alderdiek hitzarmen hau egiteko behar adinako legezko gaitasun aitortzen diote elkarri, eta ondorio horretarako

AZALTZEN DUTE

I.- Herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko ahaleginean, Irurako Udalak eta Tolosaldeko Komunikazio Taldeak bat egiten dutela euskararen erabilera eta normalizazioan eragiteko premia eta helburuekin, eta, asmo honen zerbitzura, herritarrak euskaraz informatzeko eskualde mailako komunikabide sarea sustatzea dela hitzarmen honen xede eta funtsa.

II.- Tolosaldeko Komunikazio Taldeak egunean dituela zerga-betebehar guztiak eta egunean dagoela Gizarte Segurantzarekin.

III.- Tolosaldeko Komunikazio Taldeak ez daukala debekurik dirulaguntzak jasotzeko. Debeku horiek Lege honetan daude jasota: 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa; 13. artikulua 2. eta 3. zenbakiak.

IV.- Tolosaldeko Komunikazio Taldea dela Tolosaldeko Ataria egunkari eta astekaria, Ataria Irratia eta www.ataria.eus guneak osatzen duten proiektu komunikatibo multimediararen jabe eta ekoizpen arduraduna.

V.- Tolosaldeko Komunikazio Taldeak kudeatzen duen komunikabide sarearen eremua Tolosaldeko eskualdea osatzen duten herrietara hedatzen dela, bere onuradun direlarik bertako herri eta herritar guztiak, tartean, Irura.

VI.- Tolosaldeko Komunikazio Taldeak eraturako euskarazko proiektu komunikatibo honen helburu nagusia, eskualdean sortzen den informazioa herritarrei bitarteko anitzetan euskaraz komunikatzea dela, eta honela, euskararen erabilpena sustatzeko eta normalizazioa eragiteko Udalak duen plangintzari ekarpen esanguratsua egiten zaiola.

VII.- Beharrezkoa dela, Tolosaldeko Komunikazio Taldeak aipatu helburuekin eskualdean egiten duen lanari behar bezalako aitortza egitea ez ezik, bere jardunaren kalitatea ziurtatu eta sendotzeko Udala eta Tolosaldeko Komunikazio Taldearen arteko lankidetzak jardunean sakontzea, aintzat harturik Eusko Lege Biltzarraren *2/2016 legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak*, Udalari ematen dizkion eskumenak eta Komunikazio Taldeak 2023rako aurkeztutako proiektu komunikatiboa eta bideragarritasun plangintza.

VIII.- Tolosaldeko Komunikazio Taldeak gizartea zerbitzatzea duela helburu, ez duela irabazi helbururik eta, irabazirik sortuko balitz, kudeatzen duen proiektu komunikatiboa hobetzera bideratuko dela osoki.

IX.- Aipatu den 38/2003 Legearen 22.2 artikulua araberak, dirulaguntza hau zuzenean emango dela, Irurako Udalaren 2023ko Aurrekontuan izenez aurreikusita dagoenez.

X.- Hitzarmen honen xedea dela Tolosaldeko Komunikazio Taldeari laguntza ematea 2023ko proiektu komunikatiboa bideratzeko eta, Udalarekin elkarlanean, hedabideen alorrean euskararen erabilpenaren normalizazio-lanak bideratzeko.

XI.- Araubide juridikoa:

- Espainiako Konstituzioak 43.3 artikuluan adierazten du botere publikoek herritarren bizi baldintzak hobetzeko ekintzak sustatuko dituztela.
- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, 22.2.a) artikuluan aurreikusten du toki erakundeen aurrekontuetan modu nominatiboan aurreikusitako dirulaguntzak zuzenean emateko aukera.
- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak, 28. artikuluan xedatzen du hitzarmena izango dela toki erakundeen aurrekontuetan modu nominatiboan aurreikusitako dirulaguntzak bideratzeko ohiko tresna.
- Irurako Udalak 2022/2024 urteetarako dirulaguntzen plan estrategikoa onartu du (2022-04-19an GAO n argitaratua), onura publikoko edo gizarte-intereseko jarduera bat sustatzeko edo helburu publiko bat sustatzeko helburua duten politika publikoak planifikatzeko tresna gisa. Bertan dator zehaztuta hitzarmen honi dagokion Euskara Saileko dirulaguntza lerroa.
- Irurako Udaleko Udaltzako 2023ko urtarrilaren 31ko ohiko Osoko Bilkuran eman zion hasierako onarpenera 2023ko udal-aurrekontuari, eta behin betikoz onartu zen 2023ko otsailaren 27an (GAO, 2023-03-09), bertan jasota dagoelarik hitzarmen honi dagokion dirulaguntza.

Eta ados daudenez, bi aldeek hitzarmen hau formalizatu dute, ondoren zehazten diren klausulak ezarriz.

KLAUSULAK

Lehena: Xedea.

Zehaztu da dirulaguntzaren helburua dela Tolosaldeko Komunikazio Taldeari laguntza ematea 2023ko proiektu komunikatiboa bideratzeko eta, Udalarekin elkarlanean, hedabideen alorrean euskararen erabileraren normalizazio-lanak bideratzeko.

Bigarrena: Entitate onuradunaren konpromisoa.

Tolosaldeko Komunikazio Taldeak jarraian aipatzen diren ekoizpen ildoak garatu eta hobetzen ahalegintzeko konpromisoa hartzen du:

- a) Tolosaldeko Ataria, prentsa: argitaratuko dira zortzi orriko egunkaria astearte, asteazken eta ostegunean, eta astekaria ostiraletan, abuztuan izan ezik.
- b) Ataria Irratia 24 ordutan, urte osoan: gutxienez 5 orduko programazio propioa emitituko da astelehenetik ostiralera, abuztuan izan ezik; arratsaldean tartean utziko dira eskualdeko Gizarte Eragileen ekarpenez betetzeko.
- c) Internet, urte osoan: ataria.eus webgunea eguneratu, elikatu eta sare sozialen bitarteko hedapena egingo da urte osoan, etenik gabe.
- d) Eskualdeko tokiko hedabideekin elkarlan bideak jorratuko dira sinergiak baliatu eta interes komuneko eta kalitatezko edukiak ekoizteko, edozein euskarritan.

Aipatutako ildoak bideratzeko, herritarrei eskaintzen zaien zerbitzua ere baden heinean, konpromiso hauek hartzen ditu:

- e) Herritarren intereseko produktuak (edukiak, formatu, maiztasun ...) lantzeko ahalegina egingo da. Hedabideen bilakaera azkarra kontuan, gertatzen diren aurrerabideak eten gabe aztertu dira beharrezkoak izan daitezkeen hobekuntzak egiten saiatzeko.
- f) Ataria hedabideek, beren-beregi zainduko dituzte hedatutako informazioen pluraltasuna eta objektibotasuna, iritzi zein pentsamolde guztiei lekua eginez, herritar guztien erreferentziazko komunikazio gunea izateko helburuarekin.
- g) Ataria marka gizarteratu eta harpide sarea zabaltzeko eta irismena areagotzeko ahalegin etengabea egingo da; urtez urteko egitasmoan finkatutako dira helburuak eta neurketa adierazleak.
- h) Herri guztietan dugun banaketa sistema hobetzeko neurri bideragarriak hartuko dira.

Hirugarrena: Diruz lagundutako jardueren finantziazioa eta Udalaren konpromisoa.

Diru ekarpen zuzena. Proiektuaren luzerako bideragarritasuna eta egonkortasun ekonomikoa bermatzeko, hitzarmen hau 2023. urtekoa izango da. Hori gauzatzeko 9.500 € emango dizkio 2023. urtean Udalak Tolosaldeko Komunikazio Taldeari, udal-aurrekontuko partida honen kontura:

- 1 0000 481 335 00 11 2023 *Dirulaguntza hitzartua: Tolosaldeko komunikazio taldea. ATARIA.*

Gainera, Udalak, proiektua indartu eta bere bideragarritasuna bermatzeko ekimen lerro hauek garatuko ditu:

- e) Publizitatea. Erreferentzialtasuna irabazteko, publizitatea egitea behartuak dauden iragarki ofizialak eta eskelak Tolosaldeko Atarian jartzeko konpromisoa hartzen du Udalak tarifatik %50eko deskontuarekin. Gainerako publizitatea, urteko fakturazioaren arabera negoziatuko dute bi aldeek; hala balitz, urtean-urtean adostutako plangintza komertzialean islatuko litzateke.
- f) Beste euskarriak. Ohiko ekoizpenetik at, Udalaren eta Tolosaldeko Komunikazio Taldearen artean osatuko den lan-taldeak adostutako proiektua sustatzeko diru ekarpen bereziak egin ahal izango ditu Udalak.
- g) Sozializazio eta banaketa. Herritarren eta bertako indar eragileen borondatea eta lankidetzak erakartzeko Udal zerbitzuen kooperazioa izango du Tolosaldeko Komunikazio Taldeak.
- h) Informazioaren kudeaketa: Udalak berak edo herrian sortzen den informazio jariora sistematikoki trukatzeko neurriak hartuko dituzte Udalak eta Tolosaldeko Komunikazio Taldeak.

Dirulaguntza hau bateragarri izango da helburu bereko beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administrazio edo entitate publiko edo pribatu nazionaletatik, Europar Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik datozenak, kalterik egin gabe honekin batera dauden beste dirulaguntzak erregulatzeko araudiak horri buruz agindu dezakeenari.

Laugarrena: Indarraldia.

Hitzarmen honek 2023ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte izango ditu ondorioak. Emandako dirulaguntza behar bezala erabili dela justifikatu behar zaio dagokion departamentuari.

Bosgarrena: Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.

Diruz lagungarri izango diren gastuak, diruz lagundutako jardueraren izaerari inolako zalantzarik gabe dagozkionak, behar-beharrezkoak direnak, eta hitzarmena onartutako urtearen barruan sortzen direnak.

Seigarrena: Dirulaguntzaren justifikazioa.

Dirulaguntzako gastuen justifikazio dokumentuak osatu eta Irurako Udalean aurkeztu beharko dira. Ondorengo dokumentazioa hau aurkeztu beharko da:

5. Urteko jardueren memoria: dirulaguntzen helburu diren jarduerak azaltzeko memoria eta lortutako emaitzen balorazioa. Memoria honen bitartez diruz lagundu diren ekintzak egin direla eta helburuak bete direla ziurtatuko da.
6. Diruz lagundutako jardueren gastuen eta diru-sarreraren balantzea. Balantze honekin gainfinantzaketarik ez dagoela ziurtatu beharko da.
7. Jardueren gastuen zerrenda eta dokumentuen kopia. Gutxienez, Udalak emandako diru laguntza kopurua gainditzen duten fakturen kopiak aurkeztu beharko dira.
8. Zerga-betebeharrak zein Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean izatearen ziurtagiriak.

Zazpigarrena: Dirulaguntzen justifikazioa aurkezteko epea.

Dirulaguntzen justifikazioa aurkezteko epea **2024ko urtarrilaren 31n** amaituko da.

Zortzigarrena: Ordaintzeko prozedura.

Hitzarmen honen hirugarren klausulan zehatutako dirulaguntza-kopuruaren %70 jasoko du Tolosaldeko Komunikazio Taldeak (Ataria), hitzarmen hau sinatu eta hilabeteko epean. Dena dela, hitzarmena sinatu aurretik honako agiri hauek aurkeztuta izan beharko ditu:

8. Urteko jarduerarako instantzia (eskaera), entitate onuradunaren ordezkariak sinatuta.
9. Dirulaguntzaren eskatzailea den entitate onuradunaren Identifikazio Fiskaleko Kodearen agiria.
10. Elkarte edo erakundearen ordezkartza egiaztatzen duen agiria (hitzarmena sinatu behar duen pertsona erakundeko ordezkari dela egiaztatzen duena).
11. Entitate onuradunaren erantzukizunpeko adierazpena, helburu bererako eta ekitaldi ekonomiko beraren barruan beste erakunde batzuei eskatutako edo eskatuko zaizkien dirulaguntzei buruzkoa, dirulaguntzaren zenbatekoa eta erakunde emailea adierazita, edo, halakorik ez badago, dirulaguntzarik jaso ez duela eta eskatu ez duela egiaztatzen duena.

12. Finantzatu nahi diren jardueren proiektu xehatua.
13. Programatutako jardueren aurrekontua, diru-sarreraren eta gastuen aurreikuspena adierazita.
14. Entitate onuradunaren kontu korronteko titulartasunaren agiria.

Edozein gisataraz ere, Udalaren diru-ekarpena jaso ahal izateko, aurreko ekitaldiko harremanak likidatuta egon beharko du.

Dirulaguntzaren %30 jasoko du Tolosaldeko Komunikazio Taldeak (Ataria) hitzarmen honen zazpigarren klausulan ezarritako epean eta seigarren klausulan ezarritako justifikazio dokumentuak aurkeztu eta organo eskudunak onartu ondoren.

Bederatzigarrena: Diruz lagundutako jardueraren publizitatea.

Entitate onuradunak diruz lagundutako jardueren publikotasuna zabaltzeko neurriak hartu beharko ditu, diruz lagundutako objektuentzat egoki direnak, dela beren forman, dela beren iraupenean, nola baita, esaterako, Irurako Udalaren irudi instituzionala edo beraren finantzaketa publikoari buruzko legendak sartzea edo ikus-entzunezkoetan, edo, bestela, hedabideetan aipamenak egitea, eta hori dena beste finantzaketa-iturri batzuei emandako garrantzi berean.

Hamargarrena: Euskararen erabilpena.

Euskadiko Toki Erakundeek buruzko 2/2016 Legeak eta Toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzko 179/2019 Dekretuak Udalari aitortzen dizkieten eskumenak eta betebeharrak kontuan hartuz, dirulaguntzak jasotzen dituzten entitateek honako hizkuntza irizpideak bete beharko dituzte:

- 18 urtez beherakoentzat antolatutako jarduerak (ikastaro, hitzaldi, entrenamendu, partidu, jaialdi eta era guztietako ekitaldiak...) euskaraz izango dira, ahoz zein idatziz.
- Jarduera guztietan bermatuko da euskararen erabilera.
- Idatzizko komunikazioetan, publizitatea barne (kartelak, esku-orriak, sarrerak, gonbidapenak, gutunak, oharra, sare sozialak...) ezinbestekoa izango da euskara erabiltzea.
- Testu elebidunetan, hala badagokio, euskara lehenetsiko da, bai kokalekuaren aldetik, bai neurriaren aldetik. Hau da, euskarazko testua gaztelaniazkoaren gainean ala ezkerrean joango da, eta letra handiagoa eta/edo lodiagoa erabiliz idatziko da.
- Ahozko komunikazioetan, publizitatea barne (aurkezleak, hizlariak, irakasleak, monitoreak, entrenatzaileak, bozgorailuetako mezuak, irratia, telebista, musika...), ezinbestekoa izango da euskara erabiltzea.
- Bi hizkuntzak erabili behar izanez gero, euskarari lehentasuna emango zaio. Ahozko erabilera horretan, mezua bozgorailuetatik errepikatu behar denean, euskaraz, gutxienez, gaztelaniaz baino bi aldiz gehiago errepikatuko da, eta aurkezpenetan, hitzaldietan, ekitaldietan..., euskarazko aurkezpena erdarazkoaren aurretik egingo da.

- Entitate onuradunek beren eguneroko jardunean euskararen normalizazioan sakontzen joateko, urteko helburuak finkatuko dituzte Euskara Zerbitzuaren laguntzarekin.
- Entitate onuradunak Udalarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak euskaraz izango dira, hori baita administrazio honen lan hizkuntza.

Hamaikagarrena: Genero berdintasuna.

Ezin izango dute parte hartu eta ez dira pertsona edo entitate onuradun izango honako hauek:

- Pertsona fisiko eta juridikoak baldin eta beren xede edo helburuak, aukeratzeko edo sartzeko sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolamendua edo estatutuak emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuneko printzipioaren kontrakoak badira.
- Sexu edota hizkuntza sexista erabiltzen duten pertsona fisiko edo juridikoak.
- Sexuaren ziozko zigor administratibo edo penala jaso duten pertsona fisiko edo juridikoak, ezta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea dela-eta hala zigortuta daudenak ere.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasun efektiboari buruzko martxoaren 22ko Lege Organikoan xedatutako obligazioak betetzen ez dituzten entitate edo enpresak.
- Aukeratzeko prozeduran edo funtzionamenduan sexuaren ziozko bereizketaren bat egiten duten elkarteak.

Beraz, erakunde onuradunak, diruz lagundutako jardueran, honako printzipioak bete beharko ditu:

- Hizkera inklusiboa eta irudi ez sexistaren erabilera egingo du dokumentazio, euskarri eta errotulazio guztian. Jarduera sustatzeko egiten dituen kartel, testu eta agiri-tako edukietan hizkuntzaren eta irudien erabilera ez sexista egin beharko du.
- Berdintasunean eragin positiboa izatea bermatuko du.
- Genero ikuspegia eta parekidetasun irizpideak txertatuko ditu proiektuetan.
- Proiektu eta memorietan sexuagatik banandutako datuak erabiliko ditu.
- Ez du sortuko sexuagatik bereizkeria zuzena edo zeharkakoa eragiten duen jarduerarik.

Hamabigarrena: Ingurumen betebeharrak.

Pertsona edo erakunde onuradunak, oro har, ingurumeneko irizpideak hartu beharko dituzte kontuan ondorengo alorretan:

- Aurrezte eta energia eraginkortasuna.
- Hondakin frakzio ezberdinen sailkatze egokia, horiek sortzeari aurrea hartzeaz gain.
- Tokiko bioaniztasunari kalterik ez sortzea (habitat naturalak, espezieak eta prozesu ekologikoak).
- Mugikortasun iraunkorra sustatzea.
- Indarrean dagoen araudiak ezarritako gehieneko mugaz gaindiko zaratarik ez sortzea eta herritarrekiko eta ingurumenarekiko kalitate akustikoa bermatzea.

Hamahirugarrena: Jarraipen Batzordea.

Hitzarmen honen jarraipena egingo dute Irurako Udaleko eta Tolosaldeko Komunikazio Talderaren ordezkariak. Jarraipen-batzorde horren funtzioak hauek izango dira: hitzarmena ongi betetzen dela zaintzea, sor daitezkeen zalantzak argiturik; dirulaguntza jaso duten jarduera guztien memoria eta ustiapen-kontua adostea; hitzarmena betetzen ote den eta zein neurritan betetzen den aztertzea; eta bi aldeen interesekoak izan daitezkeen lankidetzak bide berriak proposatzea.

Hamalagarrena: Iraungitzea.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 51. artikuluan zehaztutakoaren arabera, entitate onuradunak bete beharreko edozein eginkizun ez betetzeak ekarriko du dirulaguntza berrikustea edo indarrik gabe uztea, eta hala balitz, emaniko diru-kopurua gutxitzea edo itzultzea. Hori guztia aurreikusita dago Ordenantzan eta Legean. Dena den, erantzukizunak eskatu ahal izango zaizkio. Izaniko ez betetzeak mailakatzeko proportzionaltasun irizpidea erabiliko da.

Bi aldeek adostu ahal izango dute hitzarmena bertan behera uztea edo etetea, ezingo balitz edo interesik ez balego lana garatzen jarraitzeko, izan proiektuaren bideragarritasunari edo izaerari atxikitako arrazoiengatik edo behar bezala justifikatutako bestelako arrazoiengatik.

Hamabosgarrena: Onuradunen betebeharrak.

Erakunde onuradunaren betebeharrak Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluan ezarritakoak izango dira, eta, zehazki, betebeharrak espezifiko hauek betetzea:

- Tolosaldeko Komunikazio Taldeak 2023ko ekitaldian burutzea dirulaguntza jasoko duen jarduera.
- 38/2003 Legeak, azaroaren 17koak, diru laguntzen lege orokorrak, 13. artikuluan xedatutako onuradun izateko debekuetan adierazitako egoeretan ez egotea, une honetan eta hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean.
- Udal organo eskudunak edo udal kontu-hartzaileak burututako egiaztapen eta kontrol jarduketak onartzea, organo hauek, emandako zenbatekoen erabileraren fiskalizazio eta kontrolerako eginkizunak baliatuta, eska diezaioketen informazio guztia emateko betebeharra izanda, 38/2003 Legean xedatutakoaren arabera.
- Irurako Udala laguntzaile gisa agertzea diruz laguntzen den proiektuan.
- Jarduera guztietan Legeak eskatzen dituen segurtasun neurriak hartzea.

Hamaseigarrena: Hitzarmenaren izaera.

Hitzarmen honek sinatzaileen artean ondorio juridikoak ditu, baina ez du kontratu izaerarik, eta ez ditu bere baitan hartzen kontratu batek dituen prestazioak. Hitzarmenaren xedea da entitatea eta Udala helburu berarekin elkarlanean aritzea.

Sektore Publikoko Araubidea onartzen duen, urriaren 2ko, 40/2015 Legearen 47. artikuluan ezartzen diren hitzarmen-moten barruan kokatzen da hitzarmen hau, hain zuzen ere, administrazio publikoaren eta entitate pribatu baten artekoa, eta hitzarmenaren araubidea legearen VI. kapituluan xedatutakoari lotuko zaio. Modu horretan, hitzarmenaren helburua izango da entitate sinatzaileak Udalari emango dion laguntzari esker, arloaren kudeaketa hobetzea; udalak egingo duen ekarpenak ez du inoiz gaindituko hitzarmenean jasotako ekimenen gastua; eta hitzartzen den dirulaguntzak 38/2003 Dirulaguntzen inguruko Lege Orokorra bete beharko du.

Hitzarmen hau interpretatu eta betetzeko orduan sor daitezkeen gai gatazkatsuak aztertzea eta ebaztea administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren ardura izango da.

Hamazazpigarrena: Izaera pertsonaleko datuak.

Hitzarmenaren xedean adierazitakoaren arabera, lanak/zereginak/zerbitzuak egiteko, ez da beharrezkoa Irurako Udalarenak diren datu pertsonalak eskuratzea. Horrela, debekatuta dago Irurako Udalarenak diren datu pertsonalak tratatzea, eskuratzea eta ikustea.

Datu pertsonalak nahi gabe eta baimenik gabe ikusiz gero, erakundeak konpromisoa hartzen du ezagutu dezakeen informazioa sekretupean eta isilpean gordetzeko eta arduraduna den erakundeko datuen babesaren ordezkariari gertatutakoa berehala jakinarazteko.

Horiek horrela, erakundeko langileak behartuta daude datuak hirugarren pertsonari ez ezagutaraztera, transferitzera, ematera edo jakinaraztera, eta betebeharrak hori Irurako Udalarekin duen harreman juridikoa amaitu ondoren ere mantenduko da.

Oro har, Irurako Udalak ezarritako eta emandako informazioaren segurtasun neurriak eta jarraibideak bete beharko dira.

Hamazortzigarrena: Baimentzea.

Entitate onuradunak espresuki ematen dio baimena Irurako Udalari behar diren datuak zuzenean eskura ditzan, edozein momentutan eta edozein Administrazio edo Erakunde Publikotatik, hitzarmen honen bitartez eskatutako dirulaguntza lortzeko ezinbesteko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

Eta ados daudela adierazteko, hitzarmena izenpetzen dute bi aldeek, nire aurrean, goiburuan aipatutako toki eta egunean, eta nik, idazkari naizen honek, fede ematen dut.

IRURAKO UDALEKO ALKATEA

TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEKO
ORDEZKARIA

Gorka Murua Macuso

Iban Urdapilleta Alkizalete

Nire aurrean,
IRURAKO UDALEKO IDAZKARIA

BOZKETA.- AHO BATEZ ONARTU DA PROPOSAMENA.

12.- IRURAKO UDALA ETA IRURAKO IKASTOLAREN ARTEKO GU ERE BERTSOTAN EKIMENA BIDERATZEKO HITZARMENA ONARTZEKO PROPOSAMENA. (2022-2023 IKASTURTEA).

Alkateak, urtero ematen den proposamenaren azalpenak eman ditu eta adierazi du ordu kopuru gehiago izango direla eta 2.200€ko dirulaguntza kopurua izango litzatekeela.

Euskara batzordeak, 2023ko martxoaren 21ean eginiko bileran gai hau aztertu zuen:

4- Erakundeei dirulaguntza: hitzarmenak onartzeko proposatzea.

Udaleko euskara teknikariak, Irurako Ikastolari, *Gu ere Bertsotan* ekimena bideratzeko, 2022-2023 ikasturteko dirulaguntza emateko eta hitzarmena sinatzeko proposamena aurkeztu du.

Hitzarmen honen helburua da Irurako Udala eta Irurako Ikastola elkarlanean aritzea, Iruran *Gu ere Bertsotan* euskal bertsolaritza lantzeko proiektua bideratzeko, haurraren hizkuntza gaitasunean eragiteko asmoz, bereziki ahozkotasunean.

Batzordeak aztertu du hitzarmena eta, quorum nahikoarekin, aho batez erabaki du Udalbatzak onar dezan proposatzea. Testu osoa doa erantsita.

Batzordeak honako hau erabaki du:

1. Irurako Ikastola Kooperatiba Elkarteari, *Gu ere Bertsotan* ekimena bideratzeko, 2022-2023 ikasturteari dagokion 2.200 euroko dirulaguntza ematea eta hitzarmena sinatzea proposatzea, Udalbatzak Osoko Bilkuran onar dezan.
2. Erabakia Irurako Ikastolari jakinaraztea.

HITZARMENA:

2022-2023 IKASTURTEKO HITZARMENA, IRURAKO UDALAREN ETA IRURAKO IKASTOLA KOOPERATIBA ELKARTEAREN ARTEKOA, GU ERE BERTSOTAN EKIMENA BIDERATZEKO

Iruran, 2023ko martxoaren 28an. sinadura elektronikoen egunean

ELKARTURIK

Alde batetik, Gorka Murua Macuso, NAN: 44142319Y, Irurako Udaleko alkatea, Udaleko idazkari Irantzu Arrizabalaga Gainzak lagunduta, martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.2 i) artikulua araberan, fede publikoa emateko.

Eta bestetik, Lorena Alonso Aramendi, NAN: 72449182X, Irurako Ikastola Kooperatiba Elkarte zuzendaria (IFZ: F20086583; helbidea: Zillar kalea 4 -20271 Irura).

ESKU HARTZEN DUTE

Lehenengoak, Irurako Udalaren izenean eta ordezkartzen, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 artikuluan ezarritako eskumenekin bat etorrira, eta horretarako behar bezala ahalmenduta, 2023ko martxoaren 28ko ohiko Osoko Bilkuran.

Bigarrenak, Irurako Ikastola Kooperatiba Elkarteko ordezkari gisa (aurrerantzean Irurako Ikastola), dagokion ahalordetze-agiriaren arabera.

Bi aldeek hitzarmen hau egiteko behar adinako legezko gaitasuna aitortzen diote elkarri eta ondorio horretarako

AZALTZEN DUTE:

I.- Irurako Ikastolak herriko haur eta gaztetxoek garapenean eragiten duen “Gu ere bertsotan” proiektuan parte hartzen duela, Gipuzkoako eta Euskal Herriko hainbat eta hainbat ikastetxek bezala. “Gu ere bertsotan”, ikastetxeetan, ikas orduetan euskal bertsolaritza lantzeko proiektua dela, oinarri pedagogikoa duena. “Gu ere bertsotan” proiektuan, bertsolaritza ikuspegi globalizatzaile batetik planteatuta, 4 arlo lantzen direla: Hizkuntza (euskara), Kultura, Musika (ahotsa) eta Trebetasun Pertsonalak eta Sozialak. Euskarazko ahozko komunikazioa lantzea dela proiektu honen helburua, horretarako bertsolaritzaren hainbat baliabide erabiliz. Bertsolaritzak hizkuntza normalkuntzan lagun dezakeela, hizkuntzari haurren eta gazteen aurrean prestigioa eman eta erabiltzeko motibazio pizgarri izan daitekeelako. Bertsolaritzaren bidez, haurren hizkuntza gaitasunean eragitea lortu nahi dela, bereziki ahozko komunikazioan. Gainera, bertsogintzak ekarpen interesgarriak egin diezazkiokeela hezkuntzari: ahozko adierazpidea hobetzea, komunikazio estrategia eraginkorrek baliaraztea, hizkuntza aldetiko sormena bultzatzea, jendaurrean egoteko eta hitz egiteko oztupoak gainditzea, ideiak ordenatzen laguntzea, komunikatzaile onak heztea...

II.- Irurako Ikastolak egunean dituela zerga-betebehar guztiak eta egunean dagoela Gizarte Segurantzarekin.

III.- Irurako Ikastolako ordezkariak adierazten duela berak eta elkarteak, Irurako Udaleko dirulaguntza eskatzeari begira eta onuradun izaera lortzeko, betetzen dituela Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan ezarritako baldintzak.

IV.- Hitzarmen honen diru-ekarpenarekin ekimen hau eraman dezakeela aurrera Irurako Ikastolak, herriko haur eta gaztetxoek garapena eta ahozko komunikazioaren lanketa sustatzeko.

V.- Irurako Udalak bat egiten duela Ikastolak proiektu honekin dituen helburuekin, herriko haur eta gaztetxoek garapena eta ahozko komunikazioaren lanketa sustatzea udalerriantzat onuragarria delako.

VI.- Beste aldetik, 2016 Legearen 7. artikulua arabera (apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeek buruzkoa) udalek eskumen propio gisa dutela beren lurralde-eremuan euskararen ezagutza sustatzea eta erabilera dinamizatzea, horretarako zerbitzuak eta jarduerak zuzenean antolatuz, edo beste pertsona edo erakunde batzuek euskara sustatu eta dinamizatzeko aldera burutzen dituzten jardueren finantzaketan lagunduz.

VII.- Aipatu den 38/2003 Legearen 22.2 artikulua arabera, dirulaguntza hau zuzenean emango dela, Irurako Udalen 2023ko Aurrekontuan izenez aurreikusita dagoenez.

VIII.- Irurako Udalen 2023ko **martxoaren 28ko** ohiko Osoko Bilkuran onartu duela hitzarmen hau egitea. Eta ados daudenez, bi aldeek hitzarmen hau formalizatu dute, ondoren zehazten diren klausulak ezarriz.

KLAUSULAK

Lehena: Xedea.

Hitzarmen honen helburua da Irurako Udala eta Irurako Ikastola elkarlanean aritzea, Iruran “Gu ere bertsotan” euskal bertsolaritza lantzeko proiektua bideratzeko, haurren hizkuntza gaitasunean eragiteko asmoz, bereziki ahozko komunikazioan.

Bigarrena: Entitate onuradunaren konpromisoa.

Irurako Ikastolak “Gu ere bertsotan” ekimena eramango du aurrera 2022-2023 ikasturtean, Gipuzkoako Bertsozale Elkartearen eskutik, aurrez azaldutako helburuak betetzeko.

Hirugarrena: Diruz lagundutako jardueren finantziaketa.

Hitzarmen honen bidez, Udalak, proiektua indartu eta bere bideragarritasuna bermatzeko, ekimen lerro hauek garatuko ditu:

Diru ekarpen zuzena. Herritar guztiontzako interesgarriak diren helburuak betetzeko eta

proposatutako ekimena burutzeko, hitzarmen hau 2022-2023 ikasturtekoa izango da. Hori gauzatzeko 2.200 euro emango dizkio Udalak Irurako Ikastolari, 2023. urteko udal-aurrekontuko partida honen kontura:

- 1.000.481.335.00.51 2023 Dirulaguntza hitzartua: Gu ere Bertsotan, Irurako Ikastola.

Dirulaguntza horrek finantzatuko du defizit-kopuruaren %100.

Laugarrena: Indarraldia.

Hitzarmen honek 2023ko ekainaren 30era arte izango ditu ondorioak. Emandako dirulaguntza behar bezala erabili dela justifikatu behar zaio dagokion departamentuari.

Bosgarrena: Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.

Diruz lagungarri izango diren gastuak, diruz lagundutako jardueraren izaerari inolako zalantzarik gabe dagozkionak, behar-beharrezkoak direnak, eta hitzarmena onartutako ikasturtearen barruan sortzen direnak.

Seigarrena: Dirulaguntzaren justifikazioa.

Dirulaguntzako gastuen justifikazio dokumentuak osatu eta Irurako Udalean aurkeztu beharko dira. Ondorengo dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

5. Ekimenaren balorazio-txostena. Txosten honen bitartez diruz lagundu den ekimena egin dela eta helburuak bete direla ziurtatuko da.
6. Diruz lagundutako ekimenaren gastuen eta diru-sarreraren balantzea. Balantze honekin gainfinantzaketarik ez dagoela ziurtatu beharko da.
7. Gastuen dokumentuen kopiak. Aurkeztutako fakturen arabera doituko da dirulaguntza.
8. Zerga-betebeharrak zein Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean izatearen ziurtagiriak.

Zazpigarrena: Dirulaguntzen justifikazioa aurkezteko epea.

Dirulaguntzen justifikazioa aurkezteko epea 2023ko ekainaren 30ean amaituko da.

Zortzigarrena: Ordaintzeko prozedura.

Hitzarmen honen hirugarren klausulan zehaztutako dirulaguntza-kopuruaren %70 jasoko du Irurako Ikastolak hitzarmen hau sinatu eta hilabeteko epean. Dena dela, hitzarmena sinatu aurretik honako agiri hauek aurkeztuta izan beharko ditu:

15. Urteko jarduerarako instantzia (eskaera), entitate onuradunaren ordezkariak sinatuta.
16. Dirulaguntzaren eskatzailea den entitate onuradunaren Identifikazio Fiskaleko Kodearen agiria.
17. Entitate onuradunaren ordezkari-tza egiaztatzen duen agiria (hitzarmena sinatu behar duen pertsona entitateko ordezkari dela egiaztatzen duena).
18. Entitate onuradunaren erantzukizunpeko adierazpena, helburu bererako eta ekitaldi ekonomiko beraren barruan beste erakunde batzuei eskatutako edo eskatuko zaizkien dirulaguntzei buruzkoa, dirulaguntzaren zenbatekoa eta erakunde emailea adierazita, edo, halakorik ez bada, dirulaguntzarik jaso ez duela eta eskatu ez duela egiaztatzen duena.
19. Finantza nahi diren jardueren proiektu xehatua.
20. Programatutako jardueren aurrekontua, diru-sarreraren eta gastuen aurreikuspena adierazita.
21. Entitate onuradunaren kontu korronteko titulartasunaren agiria.

Edozein gisara ere, Udalaren diru-ekarpena jaso ahal izateko, aurreko ekitaldiko harremanak likidatuta egon beharko du.

Dirulaguntzaren %30 jasoko du Irurako Ikastolak hitzarmen honen zazpigarren klausulan ezarritako epean eta seigarren klausulan ezarritako justifikazio dokumentuak aurkeztu eta organo eskudunak onartu ondoren.

Laugarrena: Euskararen erabilpena.

Euskadiko Toki Erakundeek buruzko 2/2016 Legeak eta Toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzko 179/2019 Dekretuak Udalarai aitortzen dizkion eskumenak eta betebeharrak kontuan hartuz, dirulaguntzak jasotzen dituzten entitateek honako hizkuntza irizpideak bete beharko dituzte:

- 18 urtez beherakoentzat antolatutako jarduerak (ikastaro, hitzaldi, entrenamendu, partidu, jaialdi eta era guztietako ekitaldiak...) euskaraz izango dira, ahoz zein idatziz.
 - Jarduera guztietan bermatuko da euskararen erabilera.
 - Idatzizko komunikazioetan, publizitatea barne (kartelak, esku-orriak, sarrerak, gonbidapenak, gutunak, oharrak, sare sozialak...) ezinbestekoa izango da euskara erabiltzea.
 - Testu elebidunetan, hala badagokio, euskara lehenetsiko da, bai kokalekuaren aldetik, bai neurriaren aldetik. Hau da, euskarazko testua gaztelaniazkoaren gainean ala ezkerrean joango da, eta letra handiagoa eta/edo lodiagoa erabiliz idatziko da.
 - Ahozko komunikazioetan, publizitatea barne (aurkezleak, hizlariak, irakasleak, monitoreak, entrenatzaileak, bozgorailuetako mezuak, irratia, telebista, musika...), ezinbestekoa izango da euskara erabiltzea.
- Bi hizkuntzak erabili behar izanez gero, euskarari lehentasuna emango zaio. Ahozko erabilera horretan, mezua bozgorailuetatik errepikatu behar denean, euskaraz, gutxienez, gaztelaniaz baino bi aldiz gehiago errepikatuko da, eta aurkezpenetan, hitzaldietan, ekitaldietan..., euskarazko aurkezpena erdarazkoaren aurretik egingo da.
- Entitate onuradunek beren eguneroko jardunean euskararen normalizazioan sakontzen joateko, urteko helburuak finkatuko dituzte Euskara Zerbitzuaren laguntzarekin.
 - Entitate onuradunak Udalarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak euskaraz izango dira, hori baita administrazio honen lan hizkuntza.

Bosgarrena: Genero berdintasuna.

Ezin izango dute parte hartu eta ez dira pertsona edo entitate onuradun izango honako hauek:

- Pertsona fisiko eta juridikoak baldin eta beren xede edo helburuak, aukeratzeko edo sartzeko sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolamendua edo estatutuak emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuneko printzipioaren kontrakoak badira.
- Sexu edota hizkuntza sexista erabiltzen duten pertsona fisiko edo juridikoak.
- Sexuaren ziozko zigor administratibo edo penala jaso duten pertsona fisiko edo juridikoak, ezta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea dela-eta hala zigortuta daudenak ere.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasun efektiboari buruzko martxoaren 22ko Lege Organikoan xedatutako obligazioak betetzen ez dituzten entitate edo enpresak.
- Aukeratzeko prozeduran edo funtzionamenduan sexuaren ziozko bereizkeriaren bat egiten duten elkarteak.

Beraz, erakunde onuradunak, diruz lagundutako jardueran, honako printzipioak bete beharko ditu:

- Hizkera inklusiboa eta irudi ez sexistaren erabilera egingo du dokumentazio, euskarri eta errotilazio guztian. Jarduera sustatzeko egiten dituen kartel, testu eta agiritako edukietan hizkuntzaren eta irudien erabilera ez sexista egin beharko du.
- Berdintasunean eragin positiboa izatea bermatuko du.
- Genero ikuspegia eta parekidetasun irizpideak txertatuko ditu proiektuetan.
- Proiektu eta memorietan sexuagatik banandutako datuak erabiliko ditu.
- Ez du sortuko sexuagatik bereizkeria zuzena edo zeharkakoa eragiten duen jarduerarik.

Seigarrena: Ingurumen betebeharrak.

Pertsona edo erakunde onuradunek, oro har, ingurumeneko irizpideak hartu beharko dituzte kontuan ondorengo alorretan:

- Aurrezte eta energia eraginkortasuna.
- Hondakin frakzio ezberdinen sailkatze egokia, horiek sortzeari aurrea hartzeaz gain.
- Tokiko aniztasunari kalterik ez sortzea (habitat naturalak, espezieak eta prozesu ekologikoak).
- Mugikortasun iraunkorra sustatzea.
- Indarrean dagoen araudiak ezarritako gehieneko mugaz gaindiko zaratarik ez sortzea eta herritarrekiko eta ingurumenarekiko kalitate akustikoa bermatzea.

Hamahirugarrena: Jarraipen batzordea.

Hitzarmen honen jarraipena egingo dute Irurako Udaleko eta Irurako Ikastolako ordezkariak. Jarraipen-batzorde horren funtzioak hauek izango dira: hitzarmena ongi betetzen dela zaintzea, sor daitezkeen zalantzak argituz; dirulaguntza jaso duten jarduera guztien memoria eta ustiapen-kontua adostea; hitzarmena betetzen ote den eta zein neurritan betetzen den aztertzea; eta bi aldeen interesekoak izan daitezkeen lankidetzak bide berriak proposatzea.

Hamalagarrena: Iraungitzea.

Hitzarmen hau iraungiko da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 51. artikuluan zehaztutako kasuetan.

Hamabosgarrena: Onuradunen betebeharrak.

38/2003 Legearen 14. artikuluan aipatutako onuradunen betebeharrak bete beharko ditu erakunde onuradunak. Eta baita, bere jarduera gauzatzean, indarrean dagoen legedian ezarritakoa, bereziki zergei, lan-harremanei, Gizarte Segurantzari edo horren aplikaziotik eratorzen den guztiari dagokienez.

Hamaseigarrena: Izaera administratiboa.

Hitzarmen honek izaera administratiboa du. Beraz, bere klausulek eta, bere kasuan, aplikatzekoa den legediak arautzen dute.

Hitzarmen honetan xedatuta ez dagoen edozertarako, aipatutako azaroaren 17ko 38/2003 Legea bete behar da, eta Dirulaguntzei buruzko Irurako Udal Ordenantza.

Hamazazpigarrena: Izaera pertsonaleko datuak.

Izaera pertsonaleko datuak arautzen dituen legeriak agintzen duenari jarraituta, bi aldeek konpromisoa hartzen dute indarrean dagoen legerian xedatutakoa beteko dutela, aplika daitezkeen guztian.

Hamazortzigarrena: Baimentzea.

Entitate onuradunak espresuki ematen dio baimena Irurako Udalari behar diren datuak zuzenean eskura ditzan, edozein momentutan eta edozein Administrazio edo Erakunde Publikotatik, hitzarmen honen bitartez eskatutako dirulaguntza lortzeko ezinbesteko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

Eta ados daudela adierazteko, hitzarmena izenpetzen dute bi aldeek, nire aurrean, goiburuan aipatutako toki eta egunean, eta nik, idazkari naizen honek, fede ematen dut.

IRURAKO UDALEKO ALKATEA

IRURAKO IKASTOLAKO ZUZENDARIA

Gorka Murua Macuso

Beñat Iguaran Amondarain

Nire aurrean,
IRURAKO UDALEKO IDAZKARIA

Irantzu Arrizabalaga Gainza

BOZKETA.- AHO BATEZ ONARTU DA PROPOSAMENA.

13.- IRURAKO UDALA ETA ONINTZA ARTEKO HITZARMENA ONARTZEKO PROPOSAMENA. (2022-2023 IKASTURTEA).

Alkateak puntu berri bat txertatzen du, diktaminatu gabeko gaia da Onintza Abesbatzaren eta udalaren arteko hitzarmena, gaia aurreko gaiekin duen lotura garbia dela eta hartzen da udalbatza honetara aurkezteko erabakia.

Halaber, Onintza elkartearen eskaera ezin izan da garaiz tramitatu nahiz eta dokumentazio guztia udalean egon.

Udalkide guztiak onartu dute gaia diktaminatu eta tratatzea.

HITZARMENA:

IRURAKO UDALA ETA ONINTZA ABESBATZAREN ARTEKO HITZARMENA

Iruran, 2023ko martxoaren 31an

BILDURIK

Alde batetik, NEREA MENDIZABAL ORMAZABAL adinez nagusia, 72449238-C nortasun agiria duena, Iruran, kale nagusia 6 Behea C helbidea duenak, Onintza Abesbatza Elkartearen izenean.

Eta bestetik, GORKA MURUA MACUSO, Irurako Udaleko alkate-lehendakaria, egintza honetan udal idazkaria den IRANTZU ARRIZABALAGA GAINZAK lagundurik.

PARTE HARTZEN DUTE

Nerea Mendizabal Ormazabalek, Onintza Abesbatza Elkartearen ordezkari gisa aurkeztu dituen Estatutuen arabera. Estatutu hauek hitzarmen honi erantsen zaizkio 1. zenbakiarekin.

Alkateak, Irurako Udalaren izenean eta ordezkari gisa, 2023ko martxoaren 28n egindako Osoko Bilkuran eman zitzaion ahalmenaren arabera.

Bi aldeek hitzarmen hau egiteko gaitasun osoa eta kasuan kasuko ordezkari gisa aitortzen diote elkarri eta eragin horretarako ondokoa

AZALDU DUTE

Onintza Abesbatza Elkartek eta Irurako Udalak hitzarmena sinatuko dute, honen diru ekarpenarekin hainbat ekintza eramango ditu aurrera Onintza Abesbatzak, aurkeztu duen memorian zehaztu dituenak, musikarekin zerikusia duten kultur ekitaldiak burutzeko.

Lehena.- Onintza Abesbatza, musikarekin zerikusia duten jardueren sustapenerako elkarte da. Herrian sortua, herritarren musika zaletasuna sustatu eta herritarren arteko harremanak sendotzeko elkargune izateko.

Bigarrena.- Irurako Udalak bat egiten du elkarte honek proposatutako musika zaletasuna sustatu eta herritarren arteko harremanak sendotzeko helburuekin.

Hirugarrena.- Hitzarmen hau, Irurako Udalak 2023ko martxoaren 28an egindako Osoko Bilkurak onartu du.

Laugarrena.- Nerea Mendizabal Ormazabal andreak adierazten du, bere ardurapean, bera eta ordezkari gisa duen elkarte ez daudela azaroaren 17ko 38/2003 Diru Laguntzen Lege Orokorraren 13. artikulua xedatzen duen egoeran.

Bosgarrena.- Toki Ondasunen Erregelamendua arautzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege-Dekretuko 109.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, udalek laga ahal izango dituzte beren ondare-izaerako ondasunak, beti ere baldintza hauek kontuan harturik:

-lagapenaren esleipendunak irabazi asmorik gabeko eta herri-intereseko erakundea izan behar du.
-lagapenak udalerriko biztanleen onura izan behar du helburua.

Aurrez adierazitakoa, eta bi aldeen arteko lankidetzak udalerrientzat onuragarria dela ikusirik, Irurako Udalak eta Onintza Abesbatza Elkartek erabaki dute lankidetzak hitzarmen hau izenpetzea ondorengo klausula hauei loturik:

KLAUSULAK

LEHENA.- Hitzarmenaren xedea da Onintza Abesbatzak hainbat ekintza eramatea aurrera 2023 urtean, musika zaletasuna sustatzeko eta herritarren arteko harremanak sendotzeko: besteak beste ondorengoak ditu aurreikusita 2023 urterako:

- Martxoan Fraisoro egoitzan (Zizurkil) egoiliarrei kontzertua eskaintzea.
- Apirilak 29an Kataluniako Coral L'allança gonbidatu eta berarekin batea kontzertua eskaintzea Irurako herritarren bertako elizan.
- Maiatza kulturalen abesbatzaren kontzertua Irurako herrian
- Ekainean Katalunian musika emanaldi bat eskaintzea
- San Juan bezperako ekitaldietan abestea
- San Migel festetan abesbatzaren emanaldia Irurako Herrian beste abesbatza baten partaidetzarekin.
- Abenduan Eguberritako kontzertua herrian.
- Abenduaren 24ean herrian zehar Eguberritako kantuek abestea.
- Sortu daitezken beste kultur ekitaldi batzuk

Ekintza horiek finantzatzeko eta diru-sarrerak lortzeko, elkarteak duen aukera bakarra, hainbat ekintzari sarrera-tasa ipintzea da. Hori dela eta, udalari babes ekonomikoa eta baliabide publikoen erabilpena eskatuko dizkio.

• Onintza Abesbatza elkartearen betebeharrak:

- 0 Diruz lagunduko diren proiektuak gauzatea.
- 0 Proiektu horiei buruzko unean uneko informazioa ematea Udalari.
- 0 Elkartek, herriari zuzendutako ekintza guztietan Udalaren laguntza eta babesjasotzen duela adieraziko du.
- 0 Udalarekin elkarlanean, ekitaldi bat antolatzea adostutako datan, egindako lanaren berri emateko balioko duena eta herritarrak sentsibilizatzeko helburua izango duena.
- 0 Urtearen bukaeran, proiektuen gauzatze-mailari buruzko txostena aurkeztea eta diru-kontuak egoki zuzitzea.

• Irurako Udalaren betebeharrak:

- 0 Dirulaguntzaren ordainketa zehaztutako modu eta garaian egitea.
- 0 Irura Bizirekin elkarlanean, ekitaldi bat antolatzea adostutako datan, egindako lanaren berri emateko balioko duena eta herritarrak sentsibilizatzeko helburua izango duena.

BIGARRENA.- Diru-laguntzaren kopurua eta ordaintzeko era: Irurako Udalak 3.000 euro arteko dirulaguntza onartuko du Onintza Abesbatza Elkartearentzat, aipatu dituen eta herritar guztion musika zaletasuna sustatzeko interesgarriak diren helburuak betetzeko programatutako ekintzak burutzeko.

Dirulaguntza hori kreditu honetatik ordainduko da:

2023ko udalaren aurrekontuaren partida: 1 0000.481.334.00.20 2023 (1382)

Udal honek aipatutako zenbatekoaren %70 ordainduko dio Onintza Abesbatza Elkarteari hitzarmena izenpetutakoan, eta gainerako %30 gastuen eta sarreraren balantzea aurkeztutakoan.

HIRUGARRENA.- Dirulaguntza justifikatzeko epea eta modua: 2024ko urtarrilaren 31 rako, elkarteak

2023ko ekitaldian egin dituen ekintzen memoria eta balantze ekonomikoa aurkeztu beharko ditu, fakturen eta bestelako agirien kopiak erantsita; eta jasotako beste edozein administraziok edo erakunde publiko zein pribatuk xede bererako emandako diru-laguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabideekiko bateragarritasuna edo bateraezintasuna aztertu ondoren, eta udalak diru-laguntzaren zuriketa proposamena egingo du.

LAUGARRENA.-HIZKUNTZA BETEBEHARRAK

Erakunde onuradunak udalarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak euskaraz izango dira. Erakunde onuradunak diruz lagundutako jardueran argitaratzen diren idatzi, iragarki, ohar eta gainerrako komunikazioak orokorrean euskaraz ezagutarazi beharko ditu, eta publizitatearekin ere, ahozko zein idatzia izan, berdin jokatu du. Hala ere, diru laguntzen lerro bakoitzaren deialdian edo dagokion hitzarmenean jarduera mota bakoitzari dagokion hizkuntza irizpide berezituak zehaztuko dira.

Onintza Abesbatza Elkarteak Udalaren hizkuntza jarduera arautzeko planen arabera jokatu du, printzipiohauek oinarri hartuta:

Proporzionaltasun-printzipioa bermatuko du, diruz lagundutako jardueraren ezaugarrien, xedearen eta hartzaileen arabera.

Hizkuntza irizpideak diruz lagundutako jarduerari lotuta egongo dira.

Diruz lagundutako jardueren komunikazioak edo argitalpenak egin behar direnean, lehenetsuna emango zaio euskarari.

Irura Onintza Abesbatza Elkarteko ordezkariak Udalarekin ahozko eta idatzizko harremanak euskaraz izango dituzte, hori baita administrazio honen lan-hizkuntza.

Eta zalantzak argitzeko edo laguntza eskatzeko aukera izango dute Udalaren Euskaradepartamentura joz.

BOSGARRENA.- GENERO-BERDINTASUNAREN ARLOKO BETEBEHARRAK.

Pertsona onuradunak aplikatzekoa zaion indarreko araudi guztia errespetatu beharko du; eta bereziki Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea. Erakunde onuradunak diruz lagundutako jardueran honako printzipio orokorrak bete beharko ditu:

g) Hizkera inklusiboa eta irudi ez sexistaren erabilera dokumentazio, euskarri eta errotulazio guztian.

h) Berdintasunean eragin positiboa izatea bermatzea.

Genero ikuspegia eta parekidetasun irizpideak txertatzea proiektuetan.

i) Proiektu eta memorietan sexuagatik bereizitako datuak erabiltzea. Diru-laguntzen lerro bakoitzaren deialdian edo dagokion hitzarmenean jarduera mota bakoitzari dagokion berdintasun irizpide bereziak zehaztuko dira.

j) Irura Bizik genero-ikuspegia kontuan hartu beharko du, ondorengoak betez:

k) Jarduerak sustatzeko egiten dituen kartel, testu eta agirietako edukitan hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista egin beharko du.

l) Ez du sortuko sexuagatik bereizkeria zuzena edo zeharkakoa eragiten duen jarduerarik.

SEIGARRENA.- INGURUMEN BETEBEHARRAK.

Pertsona edo erakunde onuradunek, oro har, ingurumeneko irizpideak hartu beharko dituzte kontuan ondorengo alorretan:

f) Aurrezte eta energia eraginkortasuna.

g) Hondakin-frakzio ezberdinen sailkatze egokia, horiek sortzeari aurrea hartzeaz gain.

h) Tokiko aniztasunari kalterik ez sortzea (habitat naturalak, espezieak eta prozesu ekologikoak).

i) Mugikortasun iraunkorra sustatzea.

j) Indarrean dagoen araudiak ezarritako gehieneko mugaz gaindiko zaratarik ez sortzea eta herri-tarrekiko eta ingurumenarekiko kalitate akustikoa bermatzea. Diru-laguntzen lerro bakoitzaren deialdian edo dagokion hitzarmenean jarduera mota bakoitzari dagokion ingurumen- irizpide bereziak zehaztu ahal izango dira.

ZAZPIGARRENA.- IRURAKO UDALAK PREKAZIOZ LAGAKO DION LOKALAREN ERABILPEN ARAUDIA

Onintza Abesbatza Elkarteak udalaren helbide berean izango du bere egoitza soziala. Elkarteak leku egoki batean egonkorlu arte, bi aldeek adostutako egutegi eta ordutegian erabiltzeko,

kultur-uneke 1go solairuan dagoen gazte-leku gela entsegutarako eta alboko biltegia tresnak gordezko erabiltzen jarraitu ahalko du. Lokal honen emakidaren iraupenak honako zehaztasun hau jasoko du: epe honen bukaera Haurreskola gaineko erabilera anitzeko lokalak zabaltzeko emakida aldaketaren bukaera datarekin bat egingo du, eta emakidaren baldintzak, lokal berrira transmitituko dira.

Emakiden gehieneko iraupena laurogeita hemeretzi urtekoa izango da, araudi bereziak beste epe laburrago bat ezartzen ez badu.

ZORTZIGARRENA.- EMAKIDAREN BESTE BALDINTZAK:

- j) Eraikina udal jabegokoa izango da.
- k) Emakida jabetza eskubidearen eta hirugarrenen eskubideen kalterik gabe ulertu behar da.
- l) Emakida epea amaitzen denean, emakidadunak Irurako udalaren jabetzan utzi beharko ditu eraikinean exekutaturiko obrak.
- m) Emakida epea amaitzen denean, emakidaduna erabilitako eraikina udalaren esku uztera derrigortua egongo da eta udalari bere kabuz hura bidaltzeko erabakia hartzeko eta exekutatzeko ahalmena onartuko dio.
- n) Emakidaren esleipendunak segurtasun- eta osasun-egoera onean eta egokitasun publikoko egoera onean eduki behar ditu emandako ondasun higiezina zein haren instalazioak.
- o) Emakidaren esleipendunak arrisku anitzeko aseguruia sinatu behar du udal-ondareak eta horretan egiten diren lanek, eraikinek eta instalazioek kalterik ez jasatea bermatzeko.
- p) Emakidaren esleipendunaren ardura izango dira udal-ondarea zein hango lanak, eraikitako eraikuntzak eta instalazioak erabiltzean pertsona eta ondasunek jasan ditzaketen doluzko zein erruzko kalteak.
- q) Emakidaren esleipendunak udal-ondarearen gainean eraikitako eraikin eta instalazioei aplikakiekkeen sektore-legedi guztia bete beharko du.
- r) Esleipendunaren betebeharra da emandako ondasuna baimendutako helburuetarako baka-rik erabiltzea, eta helburu horretarako esleipendunak berak erabili behar du; ezin dio jabari publikoko emakida inori laga edo eskualdatu udalaren baimenik gabe.

BEDERATZIGARRENA.- JABARI PUBLIKOKO ERABILERA PRIBATUAREN EMAKIDAK IRAUNGO DA HONOKO ARRAZOIENGATIK, EGOKITZAT JOTZEN DEN KONTRAESAN-ESPEDIENTEA IZAPIDETU ETA GERO:

- c) Emakida iraungitzearen udal-adierazpena, arrazoi hauengatik:
 - Indarraldiaren epea amaitu delako.
 - Emakidaren xede den ondasunen erabilerari buruzko baldintza bete ez delako.
 - Emakidan jasotzen diren betebeharrak, baldintzak eta helburuak ez direlako bete.
- d) Kontzesiodunak uko egin diolako.

HAMARGARRENA ARAUBIDEAK: Emakida honako hauetan arautuko da:

- Emakida –hitzarmen honetan.
- Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legea, Toki Erakundeek betebeharrekoa, eta ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuak onetsitako Toki Erakundeen Ondasunen Araudia, aurrekoarekin kontraesanean ez dagoen guztian.
- Aplikagarriak diren gainontzeko araudi orokorrak.

HAMAIKAGARRENA.- Onintza Abesbatza elkarteari eta Irurako Udalari dagokie instalazioak eta azpiegiturak zaintzea eta egoera egokian eta erabili aurretik zeuden bezala uztea.

Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorrakezarritakoaren arabera, onuradunak honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

-Nortasunaren egiaztagiria.

-Legearen 13. artikuluan adierazten diren egoeretan ez dagoela zinez aitortzea.

Foru Ogasun eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatuko duten ziurtagiriak.

Ordaintzeko modua zehaztuz baimendutako ordezkariak eginiko idatzia aurkeztea, behardenean.

HAMABIGARRENA.- Onintza Abesbatzak ez badu hitzarmena betetzen, aurreikusitako laguntza indargabetzea ekarriko du, eta, hala badagokio, kontuan harturik zertan ez den bete eta hitzarmen honen xedea zein den, Udalari itzuli egin beharko dio dirulaguntza guztia edo haren zati bat.

HAMAHIRUGARRENA.- Hitzarmena sinatzen duten bi aldeek, bere horretan eusten diete beren ahalmenei, eta hartzen dituzten erantzukizunak hitzarmenean jasotako obligazio eta konpromiso horietatik, ez besterik.

Hitzarmenak eragina izango du eta sinatzaileak bete beharko dituzte 2023ko martxoaren 31tik aurrera, eta urte beteko indarraldia izango du.

Adostasunaren seinale, hitzarmenaren bi ale sinatzen ditugu.

Honen guztiaren berri eta fede ematen dut nik, idazkariak, adierazitako data eta lekuan.

IRURAKO ALKATEA

ONINTZA ABESBATZA ELKARTEA

UDAL IDAZKARIA

BOZKETA.- AHO BATEZ ONARTU DA PROPOSAMENA.

14.- GALDE-ERREGUAK.

Idazkariak hartu du hitza eta Alkateari adierazi dio DUS5000 Dirulaguntza eskaera dela eta heldu zaigun zuzenketa eskaerak eskatzen dituen hainbat ziurtagiri prestatu behar direla eta horietako bat, DUS5000 dirulaguntza espreski eskatzeko organo erabakiorraren erabakia da.

Irurako Udalak dirulaguntza eskatzeko garaian eta kontutan hartuta Udalbatza dela organo erabakiorra, Iruzurraren aurkako plana onartu zuen horrela dirulaguntza eskaera ahalbideratze aldera.

Udalbatza honetan, bere garaian DUS5000 dirulaguntza eskatzeko hartu zen erabakia berresteko bozketa egitea proposatzen da eta Alkateak egoki ikusten du.

BOZKETA.- AHO BATEZ ONARTU DA PROPOSAMENA.

Alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 19:15tan eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.